// NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia | Iruña, 2013ko apirilaren 25a | 43. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Ribaforadako Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (2. or.).

—Erriberriko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (30. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

# Ribaforadako Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 7an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Comptos Ganberak Ribaforadako Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2010eko ekitaldikoa, hona ERABAKIA:

**1.** Adieraztea jakitun dela txosten horren edukiari buruz.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

## Ribaforadako Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

### AURKIBIDEA

**I.** Sarrera (3. or.).

**II.** Ribaforadako Udala (3. or.).

II.1. Datu orokorrak (3. or.).

II.2. Araubide juridikoa (4. or.).

**III.** Helburua eta norainokoa (4. or.).

**IV.** Iritzia (5. or.).

IV.1. Udala (5. or.).

IV.2. Musika-eskola (8. or.).

IV.3. Kirol Kontseilua (8. or.).

**V.** Udalaren 2010eko kontu orokorraren laburpena (9. or.).

V.1. Udalaren eta Erakunde Autonomoen aurrekontuaren betetze-egoera. 2010eko ekitaldia (10. or.).

V.2. Udalaren eta haren Erakunde Autonomoen aurrekontu-emaitza zuzendua. 2010eko ekitaldia (12. or.).

V.3. Udalaren eta haren Erakunde Autonomoen diruzaintzako gerakinaren egoera-orri zuzendua 2010eko abenduaren 31n (13. or.).

V.4. Udalaren eta haren Erakunde Autonomoen egoera-balantze zuzendua 2010eko abenduaren 31n (16. or.).

V.5. Udalaren eta haren Erakunde Autonomoen Galeren eta Irabazien Kontu zuzendua 2010eko abenduaren 31n (19. or.).

**VI.** Udalari buruzko iruzkin, ondorio eta aholkuak (21. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (21. or.).

VI.2. Langile-gastuak (21. or.).

VI.3. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan (22. or.).

VI.4. Inbertsioak (23. or.).

VI.5. Transferentzien ondoriozko gastuak (24. or.).

VI.6. Finantza-zama (25. or.).

VI.7. Zerga bidezko diru-sarrerak (26. or.).

VI.8. Beste diru-sarrera batzuk (27. or.).

VI.9. Hirigintza (27. or.).

VI.10. Gorabeherak eta zalantzak (27. or.).

**VII.** Erakunde auonomoei buruzko iruzkin, ondorio eta aholkuak (27. or.).

VII.1. Musika Eskola (27. or.).

VII.2. Kirol Kontseilua (28. or.).

## I. SARRERA

2011ko urriaren 17an Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarraren eskaera bat erregistratu zen Kontuen Ganberan, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak hala eskaturik, Ribaforadako Udalaren 2010eko ekitaldiaz fiskalizazio-txosten bat egiteko eskatuz.

Urriaren 19an erregistratu zen eskaera hori Kontuen Ganberan eta 2011rako fiskalizazio-programan sartu zuen.

Azterketa-lana 2011ko azarotik 2012ko otsaila bitarteko hilabeteetan egin zen.

Txostenak zazpi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean Ribaforadako Udalari dagozkion datu orokorrak eta haren araubide juridikoa azaltzen dira eta hirugarrenean txostenaren helburuak eta egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean Udalaren eta haren erakunde autonomoaren Kontu Orokorraz dugun iritzia ematen dugu, eta bosgarren atalean Ribaforadako Udalaren eta haren erakunde autonomoen finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat. Seigarren eta zazpigarren ataletan, Udalaren eta haren erakunde autonomoen antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

## II. RIBAFORADAKO UDALA

### II.I. DATU OROKORRAK

Ribaforada Tuterako Merindadean dagoen udal soil bat da; 29 km$^2$-ko azalera du eta 3.669 biztanle zituen 2010eko abenduaren 31n.

Bere jarduera gauzatzeko, bi erakunde autonomo ditu Udalak: Kirol Kontseilua eta Musika Eskola.

Erakunde horien datu ekonomiko nagusiak –finkatu gabe– honakoak ziren 2010eko ekitaldiaren amaieran:

| Entitatea | Aitortutako betebeharrak | Aitortutako eskubideak | Langileak, 2010-12-31n |
|---|---|---|---|
| Udala | 3.824.902 | 3.759.157 | 15 |
| Musika-eskola | 97.286 | 93.924 | 21 |
| Kirol-patronatua | 116.019 | 122.912 | 5 |
| Guztira | 4.038.207 | 3.975.993 | 41 |

Udalak ez du sozietate publikorik eratu, eta mankomunitate hauetan hartzen du parte:

• Moncayoko Uren Mankomunitatea.

• Nafarroa Hegoaldeko Kirol Mankomunitatea.

• Erriberako Hondakin Solidoen Mankomunitatea.

• Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.

Canal Imperial de Aragon Ubideko Komunitateko eta EDER Partzuergoko partaidea da, orobat, Udala.

Honen segidan, Udalak ematen dituen zerbitzu publiko nagusietako batzuk eta zerbitzu horiek emateko modua adierazten dira:

| Udal Zerbitzuak | Udala | Zerbitzu-kontratua | Mankomunitatea/ Partzuergoa |
|---|---|---|---|
| Bake Epaitegiko Erregistro Zibila | X | | |
| Segurtasuna eta Babes Zibila | X | | |
| Oinarrizko Gizarte Zerbitzua | | | X |
| Haurtzaindegia | | X | |
| Etxebizitza Zaharberritzeko Bulegoa | | | X |
| Lazaretoa | | | X |
| Hilerria | X | | |
| Liburutegia | X | | |
| Musika | X | | |
| Gizarte Lankidetzako Proiektuak | X | | |
| Komunikazioak (WIFI publikoa) | X | | |
| Sektore arteko ekimenak (turismoaren sustapena eta herriaren garapena) | | | X |

II.2. ARAUBIDE JURIDIKOA

Toki-entitate honi aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

• Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.

• Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.

• Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.

• Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko 7/1985 Legea.

• 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena.

• Langileen Estatutuari buruzko 1/1995 Errege Lege Dekretua.

• Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legeak toki entitateei buruz ezarritako berezitasunekin.

• Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

• 35/2002 Foru Legea, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzkoa.

• Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitatean moldatzen dituena.

• Urriaren 26ko 13/2009 Errege Dekretu Legea, Enplegurako eta tokiko iraungarritasunerako estatuko funtsa sortu zuena.

• Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoa.

• Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak, Nafarroako toki administraziorako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak, dira araubide juridikoa ezartzen dutenak.

• Udalaren 2010eko aurrekontuaren exekuzio-oinarriak eta gainerako barne arauak.

## III. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Ribaforadako Udalaren 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorraren arauzkotasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txosten honek honako puntu hauei buruz dugun iritzia agertzea du helburua:

a) Ea Ribaforadako Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorrak irudi zehatza erakusten duen alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreren aurrekontuaren likidazioari eta 2010eko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitu zen urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan

jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

b) Zenbateraino bete duten Udalak eta haren erakunde autonomoek 2010ean izandako jarduerari aplikatzekoa zaien legedia.

c) Udalak 2010eko abenduaren 31n zuen finantza-egoera.

d) Azken fiskalizazio-txostenetan emandako gomendioak noraino bete diren.

Txosten honetan, Udalak ezarritako barne kontroleko sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetzeko edota osatzeko egokitzat jo ditugun aholkuak ere gehitu ditugu.

Udalaren 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorrak eta haren erakunde autonomoenek osatzen dute lan honek hartzen duen eremua, datu bateraturik aurkeztu ez denez. Kontu horretan, finantzen egoera-orri hauek sartzen dira, besteak beste:

• Entitatearen eta haren erakunde autonomoen aurrekontu-betetzearen egoera-orria.

• Ekitaldiko aurrekontu-emaitzaren eta entitatearen eta haren erakunde autonomoen diruzaintzagerakinaren egoera-orria.

• Entitatearen eta haren erakunde autonomoen egoeraren balantzea eta galeren eta irabazien kontua.

• Kontu Orokorraren eranskinak: zorraren egoera eta kontu-hartzailearen txostena, besteak beste, egoera-datu bateraturik ez dagoelarik.

Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauei jarraituz gauzatu da lana, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautaproba edo prozedura tekniko guztiak bildu dira; prozedura horien barruan aurrekontuko kontusailen edo eragiketa zehatzen laginen teknika edo hautazko azterketaren teknika erabili da. Zehazki, udalari eta haren erakunde autonomoei dagokienez, bai beren aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia, bai aplikaturiko oinarrizko prozedurak berrikusi dira; eta antolaketako, kontabilitateko eta barne kontroleko oinarrizko alderdiak ebaluatu dira.

Finantza-egoeraren 2007-2010tik era bitarteko bilakaera aztertzeko, Ganbera honek gisa horretako lanetan erabiltzen dituen magnitude, ratio eta adierazle berberak aplikatu dira.

## IV. IRITZIA

Gure azterketan oinarriturik, honako iritzi honetara iritsi gara:

### IV.1. UDALA

#### IV.1.1. Kontu Orokorra

Udalaren inbentarioa 2004koa da, baina ez ditu jasotzen ibilgetua osatzen duten elementu guztiak. Horregatik, ezinezkoa izan da ibilgetuaren kontabilitate-saldoa arrazoizkoa den egiaztatzea; saldo hori 17.198.996 eurokoa zen 2010eko abenduaren 31n.

Egoera-balantzeak akats hauek ditu:

• 480.194 euroko zorra adierazten du, eta zor hori 3.005.155 eurokoa dela egiaztatu ahal izan da.

• Urte horretako ekitaldiko eta Itxitako ekitaldiko aurrekontu-zordunak 894.820 eurokoak dira, eta 767.538 eurokoak izan beharko lukete.

• Balantzeko pasiboan oraindik ere aplikatzeko partida bat agertzen da, 4.133.055 eurokoa, negatibo gisa. Kopuru hori 2001ean sortu zen, akats batez, programa informatikoa aldatzean, eta oraindik ez da zuzendu.

• Ekitaldi honetako emaitzak –11.653.167 euroko kopurua– ez dira eraman ondarearen kontura.

• Udalak badu 900.000 euroko kreditu-linea bat, banketxe batean, behar bezala kontabilizatuta ez dagoena, erabilitako kopurua baizik ez dagoenez erregistratuta. Horren ondorioz, finantza kontuetako balantza, 760.771 eurokoa izan beharko lukeena, -140.372 eurokoa da, eta zorra ez da balantzean agertzen.

Aipatutako kreditu-linea hori behar bezala kontabilizatuta ez agertzeak ondorioak ditu diruzaintza-gerakina osatzen duten osagarrietan ere, horrek islatzen den azken kopuruan ondoriorik ez badu ere.

Finantzaketa atxikia duten gastuen finantzaketaren urteko desbideratzeak ez dira kalkulatzen, eta horrenbestez ez dira sartzen aurrekontuen emaitza deitua ateratzeko. Ekitaldi honetako desbideratze negatiboak 148.919 eurokoak izan dira eta positiboak 19.729 eurokoak.

Ekitaldiko emaitza ekonomikoa osatzen duten elementu batzuk ez daude behar bezala sailkatuta, baina ateratzen den zenbatekoa zuzena da.

Arestian aipaturiko salbuespenen ondorioak –balantzeari dagozkio batez ere– alde batera utzita, Udalaren 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorrak

zuzen islatzen ditu alderdirik behinenetan gastuen eta diru-sarreren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar adina informazio biltzen du hura egoki interpretatu eta ulertzeko, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoko arau-esparruaren arabera, eta, bereziki, hartan biltzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera.

**IV.1.2. Legezkotasuna**

Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz egin da, oro har, lehen aipatu diren aurrekontuen kontabilitate-gaietako salbuespen horien ondorioak salbuetsita.

**IV.1.3. 2010eko abenduaren 31ko finantza-egoera.**

Ribaforadako Udalaren hasierako aurrekontua 3,67 milioi eurokoa da. Sarreretan 297.396 euroko aldaketa izan da (ehuneko zortzi), aurreko urteko diruzaintza-gerakina sartu delako; horregatik, behin betiko aurreikuspena 3,96 milioi eurokoa da. Gastuei dagokienez, 228.596 euroko aldaketa izan da (ehuneko sei), inbertsio berrietarako bideratuak guztiak.

Aitortutako betebeharrak 3,82 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 36ko beherakada izan dute 2009. urtekoekin alderatuta. Betebehar horien betetze-portzentajea ehuneko 98koa izan da, eta ordainketen portzentajea 96koa.

Aitortutako eskubideak 3,76 milioi eurokoak dira, 2009an zirena baino ehuneko 15 gutxiago. Honi dagokionez, betetze- eta kobratze-portzentajeak ehuneko 96 eta ehuneko 89koak izan dira, hurrenez hurren.

Gastuko 100 eurotik helburuotarako erabili da euro bakoitza eta honakoen bidez finantzatu da:

| Gastuaren izaera | Zenbatekoa | Finantza iturria | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| Langileak | 20 | Tributu bidezko diru-sarrerak | 35 |
| Bestelako gastu arruntak | 38 | Transferentziak | 54 |
| Inbertsioak | 39 | Ondare bidezko diru-sarrerak | 3 |
| Finantza-zama | 3 | Zorpetzea | 8 |
| Guztira | 100 | Guztira | 100 |

Aipatutako salbuespenei dagozkien doikuntzak egin ondoren, ekitaldi honetako aurrekontuen emaitza doituak 63.445 euroko balio positiboa erakusten du.

Diruzaintza-gerakina 220.848 eurokoa da; horietatik 100.651 euro finantzaketa atxikia duten gastuetarakoak dira, eta gainerako 120.197 euroak gastu orokorretarako.

Udalaren zorpetze-maila ehuneko bostekoa da 2010ean; zorpetze-muga ehuneko 22koa da; horregatik, bada, zor berria hartzeko gaitasuna ehuneko 17koa du, ekonomiaren ikuspegitik.

Hala eta guztiz ere, Udalaren zor bizia hiru milioi eurokoa da: zor bizi hori erakunde honen diru-sarrera arrunt guztien ehuneko 106 da; portzentaje hori gaur egun zor berriak egiteko dagoen legezko mugaren, ehuneko 75en, gainetik dago.

Ondoko taulan 2007-2010 bitarteko aldian, ekitaldi horien likidazioetan Udalaren adierazle nagusiek izan zuten bilakaera erakusten da:

(eurotan)

| Adierazleak | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | Aldaketa % 2010-2007 |
|---|---|---|---|---|---|
| Diru-sarrerak guztira | 4.658.519,65 | 6.464.181,50 | 4.427.736,47 | 3.759.157,39 | -19,31 |
| Gastuak guztira | 3.245.023,96 | 5.326.072,02 | 5.937.453,96 | 3.824.902,21 | 17,87 |
| Tributu bidezko diru-sarrerak | 1.114.915,56 | 1.273.238,95 | 1.155.579,46 | 1.299.734,93 | 16,58 |
| Diru-sarrera arruntak | 2.391.940,51 | 2.678.372,03 | 2.590.082,43 | 2.828.924,98 | 18,27 |
| Funtzionamendu gastuak | 2.131.649,26 | 2.354.075,68 | 2.257.030,70 | 2.213.055,72 | 3,82 |
| Gastu arruntak | 2.170.638,14 | 2.387.016,55 | 2.393.009,13 | 2.279.232,12 | 5,00 |
| Aurrezki gordina | 260.291,25 | 324.296,35 | 333.051,69 | 615.869,26 | 136,61 |
| Finantza-zama | 170.304,19 | 159.920,62 | 232.907,54 | 129.648,99 | -23,87 |
| Aurrezki garbia | 89.987,06 | 164.375,73 | 100.144,15 | 486.220,27 | 440,32 |
| Zorpetze-maila, ehunekotan | 7,12 | 5,97 | 8,99 | 4,58 | -35,63 |
| Zorpetze-ahalmena, ehunekotan | 3,76 | 6,14 | 3,87 | 17,19 | 356,86 |
| Zorpetze-muga, ehunekotan | 10,88 | 12,11 | 12,86 | 21,77 | 100,06 |
| Zor bizia | 580.914,86 | 2.292.779,44 | 2.735.627,83 | 3.005.154,90 | 415,42 |
| Zor bizia/diru-sarrera arruntak, % | 24% | 86% | 106% | 106% | 342 |
| Inbertsio garbia | -312.664,97 | 2.799.033,40 | 3.441.962,45 | 1.476.824,42 | 572,33 |
| Transferentzia arruntekiko mendekotasuna, ehunekotan | 48,92 | 48,40 | 50,69 | 50,02 | 2,25 |
| Itundutako maileguak | 0,00 | 1.838.844,33 | 539.777,54 | 322.000,00 | - |

2007-2010 bitarteari dagokion aurreko informazio horretatik, alderdiok azpimarratu nahi ditugu:

• Diru-sarrera arruntak ehuneko 19 urritu dira; gastu arruntak, berriz, ehuneko 18 handitu dira.

• Aipatu diren adierazleen osaera aztertzen baldin bada, diru-sarrera arruntak ehuneko 18 handitu direla eta funtzionamendu-gastuak ehuneko lau baizik ez zirela handitu ikusten da.

• Zor bizia nabarmen handitu da aldi horretan; hiru milioi euroraino iritsi da 2010ean, eta kopuru horrek azterketa honetan sartzen diren azkeneko hiru urte hauetan diru-sarrera arruntekin alderatuz duen portzentajea gaur egun zor berriak egiteko dagoen legezko mugaren (ehuneko 75) gainetik dago.

• Hala eta guztiz ere, finantza-zama urritu egin da aztertzen ari den aldi horretan. Hori horrela izateko arrazoia hau da: 2008an hitzartu zen 1,84 milioi euroko mailegua eta 2009an hitzartu zen 0,54 milioi eurokoa, bi urteko ezaldi batekin hitzartu zirela biak. Era berean, 2010ean hitzartutako 322.000 euroko maileguaren finantza-zama ere nulua izan zen, eta 2011n itzultzen hasi behar zela aurreikusita zegoen.

Laburtuz, bada, Ribaforadako Udalak 2010ean 2009arekin alderatuz hobekuntzatxo bat erakusten badu ere, ez da ahaztu behar gerora izango diren ekitaldietako finantza-zama 2010ean izan dena baino handiagoa izango dela, bere maileguak hitzartzeko negoziatutako ezaldiengatik. Erakunde honek oso kontuan eduki behar du, orobat, ezin duela zorpetzeaz baliatu, gaur egun bide horretatik baliabideak eskuratzeko dagoen portzentajea gainditua duelako. Horrez gainera, bada beste kreditu-linea bat, 900.000 eurokoa, urteroko ordainketa-muga duena.

Hori guztia kontuan hartuta, beraz, Udal honek baliabide arruntak sortzen, gastu arruntak mugatzen eta, dagozkion finantzaketaz eta bideragarritasunaz, behar-beharrezkoak diren ekipamendu-inbertsioak egiten ahalegindu behar duela uste dugu.

Era berean, 2010ean bukatu zen Eguneko Zentroa martxan jarri eta egindako inbertsioari erabilgarritasuna emateko behar diren neurriak hartu beharko lirateke, Ganbera honen iritzian.

IV.2. MUSIKA-ESKOLA

**IV.2.1. Kontu Orokorra**

Ekitaldi bakoitzean sortuz doazen emaitza ekonomikoak ez dira eramaten erakunde autonomoaren ondarera.

Musika Eskolak ez du bere ibilgetuko balioak zehazten dituen inbentariorik. Hori dela-eta, ezin izan da egiaztatu ea ibilgetuaren kontabilitate-saldoa arrazoizkoa den; saldo hori 19.370 eurokoa zen 2010eko abenduaren 31n.

Arestian aipaturiko salbuespenen ondorioei dagokienez izan ezik, Musika Eskolaren 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorrak alderdi behinenetan zuzen irudikatzen ditu bere gastuen eta diru-sarreren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta bere eragiketen emaitzak. Halaber, behar adina informazio biltzen du hura egoki interpretatu eta ulertzeko, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoko arau-esparruaren arabera, eta, bereziki, hartan biltzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera.

**IV.2.2. Legezkotasuna**

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke entitatearen jarduera ekonomiko eta finantzarioa oro har legezkotasun-printzipioari jarraituz gauzatu dela.

**IV.2.3. 2010eko abenduaren 31ko egoera ekonomiko eta finantzarioa.**

Musika Eskolaren hasierako eta behin betiko aurreikuspenak 72.210 eurokoak ziren. Aitorturiko betebeharrak 97.286 eurokoak dira; ehuneko 135eko betetze-maila eta ehuneko 100eko ordainketa-portzentajea izan dute. Diru-sarrerei dagokienez, aitortutako eskubideak 93.924 euro dira; betetze-maila ehuneko 130ekoa eta kobrantza-portzentajea ehuneko 76koa izan da.

Hona 2010eko eta 2009ko abenduaren 31n izan zituen egoera ekonomikoaren adierazle batzuk:

| Adierazlea | 2010 | 2009 |
|---|---|---|
| Diru-sarrera arruntak | 93.924 | 77.871 |
| Funtzionamendu-gastuak | 94.195 | 72.381 |
| Aurrezki gordina | -271 | 5.490 |
| Aurrezki garbia | -2.881 | 2.555 |
| Aurrekontu-emaitza doitua | -3.362 | 2.567 |
| Diruzaintza-gerakina | 26.206 | 30.013 |

2009ko ekitaldiarekin alderatuta diru-sarrera arruntetan ehuneko 21eko emendioa izan da, matrikulak ehuneko 49 ugaldu direlako. 2010eko funtzionamendu-gastuak 2009koak baino ehuneko 37 handiagoak izan dira, bertako langileen gastua aurreko urtearekin alderatuta ehuneko 37 handitu delako.

Aurrekontu-emaitza doituak okerrera egin du 2010ean, 2009koarekin alderatuta, -2.567 eurokoa izatetik -3.362 eurokoa izatera aldatu baita.

Diruzaintza-gerakinak balio positiboak ditu 2010ean ere, nahiz eta aurreko urtekoa baino ehuneko 13 txikiagoa izan.

IV.3. KIROL KONTSEILUA

**IV.3.1. Kontu Orokorra**

Ekitaldi bakoitzean sortuz doazen emaitza ekonomikoak ez dira eramaten erakunde autonomoaren ondarera.

Kirol Kontseiluak ez du bere ibilgetuko balioak zehazten dituen inbentariorik. Hori dela-eta, ezin izan da egiaztatu ea ibilgetuaren kontabilitate-saldoa arrazoizkoa den; saldo hori 32.935 eurokoa zen 2010eko abenduaren 31n.

Arestian aipaturiko salbuespenen ondorioei dagokienez izan ezik, Kirol Kontseiluaren 2010eko

ekitaldiko Kontu Orokorrak alderdi behinenetan zuzen irudikatzen ditu bere gastuen eta diru-sarreren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta bere eragiketen emaitzak. Halaber, behar adina informazio biltzen du hura egoki interpretatu eta ulertzeko, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoko arau-esparruaren arabera, eta, bereziki, hartan biltzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera.

### IV.3.2. Legezkotasuna

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke entitate honen jarduera ekonomiko eta finantzarioa oro har legezkotasun-printzipioari jarraituz gauzatu dela.

### IV.3.3. 2010eko abenduaren 31ko egoera ekonomiko eta finantzarioa.

Kirol Kontseiluaren hasierako aurreikuspenak 117.025 eurokoak ziren; horietan 964 euroko aldaketa bat egin zen, eta hala behin betiko aurreikuspenak 117.989 eurokoak izan ziren. Aitorturiko betebeharrak 116.019 eurokoak dira; ehuneko 98ko betetze-maila eta ordainketa-portzentajea ia-ia ehuneko 100ekoa izan dute. Diru-sarrerei dagokienez, aitortutako eskubideak 122.912 euro dira; betetze-maila ehuneko 104koa eta kobrantza-portzentajea ehuneko 82koa izan dira, hurrenez hurren.

Hona 2010eko eta 2009ko abenduaren 31n izan zituen egoera ekonomikoaren adierazle batzuk:

| Adierazlea | 2010 | 2009 |
|---|---|---|
| Diru-sarrera arruntak | 122.912 | 131.414 |
| Funtzionamendu-gastuak | 115.988 | 106.284 |
| Aurrezki gordina | 6.924 | 25.130 |
| Aurrezki garbia | 6.892 | 25.106 |
| Aurrekontu-emaitza doitua | 6.892 | 15.872 |
| Diruzaintza-gerakina | 22.159 | 15.248 |

Diru-sarrera arruntak 2009koak baino ehuneko sei urriagoak izan dira, jasotako transferentzia arruntak ehuneko 17 urritu direlako batez ere.

Funtzionamendu-gastuak ehuneko bederatzi handitu dira, langileen gastua handitu delako batez ere.

Aurrekontu-emaitza doitua positiboa izan da 2010ean, baina ehuneko 55 urritu da 2009koarekin alderatuta.

Diruzaintza-gerakina 22.159 eurokoa da, 2009an izan zena baino ehuneko 45 handiagoa.

## V. UDALAREN 2010eko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren, Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2010eko Kontu Orokorrak jasotzen dituen finantzen egoera-orrien laburpen bat ematen dugu.

Ribaforadako Udalak ez du prestatu Kontu Orokor bateraturik; horregatik, hain zuzen, Udalaren eta Erakunde Autonomoen egoera-orriak bereizita atxikitzen ditugu.

V.1. UDALAREN ETA ERAKUNDE AUTONOMOEN AURREKONTUAREN BETETZE-EGOERA. 2010eko EKITALDIA

**V.1.1. Udala**

Diru-sarrerak kapituluz kapitulu

| Deskribapena | Hasierako aurreikuspena | Aldaketak | Behin betiko aurreik. | Aitorturiko eskubideak | Betetakoa (%) | Kobrantzak | Kobrantzak (%) | Kobratzeke dagoena |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Zuzeneko zergak | 772.400,03 | 0,00 | 772.400,03 | 806.258,55 | 104,38 | 754.297,94 | 93,56 | 51.960,61 |
| 2. Zeharkako zergak | 63.500,00 | 0,00 | 63.500,00 | 201.065,02 | 316,64 | 194.095,95 | 96,53 | 6.969,07 |
| 3. Tasak eta beste diru-sarrera batzuk | 279.560,03 | 0,00 | 279.560,03 | 292.411,36 | 104,60 | 284.310,08 | 97,23 | 8.101,28 |
| 4. Transferentzia arruntak | 1.374.693,05 | 0,00 | 1.374.693,05 | 1.415.089,14 | 102,94 | 1.351.055,53 | 95,47 | 64.033,61 |
| 5. Ondare bidezko diru-sarrerak | 118.670,01 | 0,00 | 118.670,01 | 114.100,91 | 96,15 | 91.428,98 | 80,13 | 22.671,93 |
| 6. Inbertsio errealak besterentzea | 280.000,00 | 0,00 | 280.000,00 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | - | 0,00 |
| 7. Kapital-transf. | 778.500,07 | 0,00 | 778.500,07 | 608.232,41 | 78,13 | 333.318,28 | 54,80 | 274.914,13 |
| 8. Finantza-aktiboak | 0,00 | 297.395,79 | 297.395,79 | 0,00 | 0,00 | 0,00 | - | 0,00 |
| 9. Finantza-pasiboen aldaketa | 0,00 | 0,00 | 0,00 | 322.000,00 | - | 322.000,00 | 100,00 | 0,00 |
| GUZTIRA | 3.667.323,19 | 297.395,79 | 3.964.718,98 | 3.759.157,39 | 94,82 | 3.330.506,76 | 88,60 | 428.650,63 |

Gastuak kapituluz kapitulu

| Deskribapena | Hasierako aurreikuspena | Aldaketak | Behin betiko aurreik. | Aitorturiko betebeharrak | Betetakoa (%) | Ordainketak | Ordainketak (%) | Ordaintzeke dagoena |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Langile-gastuak | 809.290,00 | -13.500,00 | 795.790,00 | 772.467,46 | 97,07 | 772.467,46 | 100,00 | - |
| 2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak | 1.341.290,03 | -29.800,00 | 1.311.490,03 | 1.307.527,06 | 99,70 | 1.201.851,81 | 91,92 | 105.675,25 |
| 3. Gastu finantzarioak | 67.810,00 | - | 67.810,00 | 66.176,40 | 97,59 | 66.176,40 | 100,00 | - |
| 4. Transferentzia arruntak | 157.000,00 | -25.500,00 | 131.500,00 | 133.061,20 | 101,19 | 91.408,55 | 68,70 | 41.652,65 |
| 6. Inbertsio errealak | 1.191.002,26 | 297.395,79 | 1.488.398,05 | 1.476.824,42 | 99,22 | 1.475.596,27 | 99,92 | 1.228,15 |
| 7. Kapital-transf. | 5.375,00 | - | 5.375,00 | 5.373,08 | 99,96 | 5.373,08 | 100,00 | - |
| 8. Finantza-aktiboak | 42.849,80 | - | 42.849,80 | - | 0,00 | - | - | - |
| 9. Finantza-pasiboak | 52.706,10 | - | 52.706,10 | 63.472,59 | 120,43 | 52.472,59 | 82,67 | 11.000,00 |
| GUZTIRA | 3.667.323,19 | 228.595,79 | 3.895.918,98 | 3.824.902,21 | 98,18 | 3.665.346,16 | 95,83 | 159.556,05 |

### V.1.2. Musika Eskola

Diru-sarrerak kapituluz kapitulu

| Deskribapena | Hasierako aurreikuspena | Aldaketak | Behin betiko aurreik. | Aitorturiko eskubideak | Betetakoa (%) | Kobrantzak | Kobrantzak (%) | Kobratzeke dagoena |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3. Tasak eta beste diru-sarrera batzuk | 27.000,00 | 0,00 | 27.000,00 | 41.893,84 | 155,16 | 41.327,32 | 98,65 | 566,52 |
| 4. Transferentzia arruntak | 45.200,00 | 0,00 | 45.200,00 | 52.029,30 | 115,11 | 29.829,30 | 57,33 | 22.200,00 |
| 5. Ondare bidezko diru-sarrerak | 10,00 | 0,00 | 10,00 | 0,57 | 5,70 | 0,57 | 100,00 | 0,00 |
| GUZTIRA | 72.210,00 | 0,00 | 72.210,00 | 93.923,71 | 130,07 | 71.157,19 | 75,76 | 22.766,52 |

Gastuak kapituluz kapitulu

| Deskribapena | Hasierako aurreikuspena | Aldaketak | Behin betiko aurreik. | Aitorturiko betebeharrak 2005 | Betetakoa (%) | Ordainketak | Ordain-ketak (%) | Ordaintzeke dagoena |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Langile-gastuak | 59.500,00 | 0,00 | 59.500,00 | 88.644,17 | 148,98 | 88.644,17 | 100,00 | 0,00 |
| 2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak | 1.325,01 | 0,00 | 1.325,01 | 5.301,18 | 400,09 | 5.301,18 | 100,00 | 0,00 |
| 3. Gastu finantzarioak | 150,00 | 0,00 | 150,00 | 2.610,37 | 1740,25 | 2.610,37 | 100,00 | 0,00 |
| 4. Transferentzia arruntak | 300,00 | 0,00 | 300,00 | 250,00 | 83,33 | 250,00 | 100,00 | 0,00 |
| 6. Inbertsio errealak | 10.934,99 | 0,00 | 10.934,99 | 480,00 | 4,39 | 480,00 | 100,00 | 0,00 |
| Guztira | 72.210,00 | 0,00 | 72.210,00 | 97.285,72 | 134,73 | 97.285,72 | 100,00 | 0,00 |

### V.1.3. Kirol Kontseilua

Diru-sarrerak kapituluz kapitulu

| Deskribapena | Hasierako aurreikuspena | Aldaketak | Behin betiko aurreikuspena | Aitorturiko eskubideak | Betetakoa (%) | Kobrantzak | Kobrantzak (%) | Kobratzeke dagoena |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3. Tasak eta beste diru-sarrera batzuk | 55.420,00 | - | 55.420,00 | 62.456,30 | 112,70 | 61.215,30 | 98,01 | 1.241,00 |
| 4. Transferentzia arruntak | 61.600,00 | - | 61.600,00 | 60.455,32 | 98,14 | 39.055,32 | 64,60 | 21.400,00 |
| 5. Ondare bidezko diru-sarrerak | 5,00 | - | 5,00 | - | 0,00 | - | - | - |
| 8. Finantza-aktiboak | - | 964,00 | 964,00 | - | 0,00 | - | - | - |
| Guztira | 117.025,00 | 964,00 | 117.989,00 | 122.911,62 | 104,17 | 100.270,62 | 81,58 | 22.641,00 |

Gastuak kapituluz kapitulu

| Deskribapena | Hasierako aurreikuspena | Aldaketak | Behin betiko aurreik. | Aitortutako betebeharrak | Betetakoa (%) | Ordainketak | Ordain-ketak (%) | Ordaintzeke dagoena |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. Langile-gastuak | 41.945,00 | 0,00 | 41.945,00 | 68.821,37 | 164 | 68.809,83 | 100 | 11,54 |
| 2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak | 52.819,00 | 0,00 | 52.819,00 | 33.806,60 | 64 | 33.647,45 | 100 | 159,15 |
| 3. Gastu finantzarioak | 25,00 | 0,00 | 25,00 | 31,09 | 124 | 31,09 | 100 | 0,00 |
| 4. Transferentzia arruntak | 17.236,00 | 964,00 | 18.200,00 | 13.360,21 | 73 | 13.360,21 | 100 | 0,00 |
| 6. Inbertsio errealak | 5.000,00 | 0,00 | 5.000,00 | 0,00 | 0 | 0,00 | - | 0,00 |
| Guztira | 117.025,00 | 964,00 | 117.989,00 | 116.019,27 | 98,33 | 115.848,58 | 99,85 | 170,69 |

V.2. UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN AURREKONTU-EMAITZA ZUZENDUA. 2010eko EKITALDIA

### V.2.1. Udala[1]

| Kontzeptua | 2010eko ekitaldia | 2009ko ekitaldia |
|---|---|---|
| Aitorturiko eskubide garbiak | 3.759.157 | 4.427.736 |
| Aitorturiko betebehar garbiak | 3.824.902 | 5.937.454 |
| Aurrekontu-emaitza | -65.745 | -1.509.717 |
| Doitzeak | | |
| Finantzaketaren desbideratze positiboa G.F.A. | 19.729 | - |
| Finantzaketaren desbideratze negatiboa G.F.A. | 148.919 | - |
| Finantzaketaren desbideratze positiboa R.A.: | - | - |
| Diruzaintza-gerakinarekin finantzaturiko gastuak | - | - |
| Aurrekontu-emaitza doitua | 63.445 | -1.509.717 |

### V.2.2. Musika Eskola

| Kontzeptua | 2010eko ekitaldia | 2009ko ekitaldia |
|---|---|---|
| + Aitorturiko eskubide garbiak | 93.924 | 77.883 |
| - Aitorturiko betebehar garbiak | 97.286 | 75.316 |
| = Aurrekontu-emaitza | -3.362 | 2.567 |
| Doitzeak | | |
| - Finantzaketaren desbideratze positiboa G.F.A. | - | - |
| + Finantzaketaren desbideraketa negatiboa G.F.A. | - | - |
| - Finantzaketaren desbideratze positiboa R.A. | - | - |
| + Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak | - | - |
| = Aurrekontu-emaitza doitua | -3.362 | 2.567 |

[1] Sartuta daude urteko desbideratze positiboak –19.729 euro– eta negatiboak –148.919 euro–.

**V.2.3. Kirol Kontseilua**

| Kontzeptua | 2010eko ekitaldia | 2009ko ekitaldia |
|---|---|---|
| + Aitorturiko eskubide garbiak | 122.912 | 131.414 |
| - Aitorturiko betebehar garbiak | 116.019 | 115.542 |
| = Aurrekontu-emaitza | 6.892 | 15.872 |
| Doitzeak | | |
| - Finantzaketaren desbideratze positiboa G.F.A. | - | - |
| + Finantzaketaren desbideraketa negatiboa G.F.A. | - | - |
| - Finantzaketaren desbideratze positiboa R.A. | - | - |
| + Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak | - | - |
| = Aurrekontu-emaitza doitua | 6.892 | 15.872 |

V.3. UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN DIRUZAINTZAKO GERAKINAREN EGOERA-ORRI ZUZENDUA 2010eko ABENDUAREN 31n

**V.3.1. Udala[2]**

| Kontzeptua | 2010eko ekitaldia | 2009ko ekitaldia |
|---|---|---|
| + Kobratzeko dauden eskubideak | 728.524 | 1.138.385 |
| + Diru-sarreren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia | 428.651 | 924.488 |
| + Diru-sarreren aurrekontua: Itxitako ekitaldia | 338.887 | 419.683 |
| + Ordainketen itzulketak | 3.500 | - |
| + Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak | - | 2.000 |
| - Nekez kobratzeko eskubideak | -42.493 | -207.786 |
| - Aplikatzeke dauden diru-sarrerak | -21 | - |
| - Ordaintzeko dauden betebeharrak | 1.268.447 | 1.299.089 |
| + Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia | 159.556 | 205.011 |
| + Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldia | 142.951 | 144.341 |
| + Diru-sarreren itzulketa | - | - |
| - Aplikatzeke dauden gastuak | - | -3.000 |
| + Aurrekontuz kanpoko gastuak | 965.940 | 952.737 |
| + Diruzaintzako funts likidoak | 760.771 | 410.440 |
| + Finantziazioko desbideratze metatu negatiboak | - | - |
| = Diruzaintza-gerakina, guztira | 220.848 | 249.736 |
| Finantzaketa atxikia duten gastuen ondoriozko diruzaintza-gerakina | 100.651 | 297.396 |
| Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina | - | - |
| Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina | 120.197 | -47.660 |

[2] 900.000 euroko kreditu-lineari dagozkion eta ordaintzeke dauden betebeharrak sartuta daude, eta kopuru hori bera sartzen da 2009 eta 2010eko diruzaintzako funts likidoetan, bi ekitaldietan zenbateko bera duen finantzabide bat baitzegoen.

**V.3.2 Musika Eskola**

| Kontzeptua | 2010eko ekitaldia | 2009ko ekitaldia |
|---|---|---|
| + Kobratzeko dauden eskubideak | 22.915 | 21.281 |
| + Diru-sarreren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia | 22.767 | 20.985 |
| + Diru-sarreren aurrekontua: Itxitako ekitaldia | 6.110 | 5.812 |
| + Ordainketen itzulketak | - | - |
| + Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak | - | |
| - Nekez kobratzeko eskubideak | -5.961 | -5.516 |
| - Aplikatzeke dauden diru-sarrerak | - | - |
| - Ordaintzeko dauden betebeharrak | 1.598 | 1.034 |
| + Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia | - | - |
| + Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldia | - | - |
| + Diru-sarreren itzulketa | - | - |
| - Aplikatzeke dauden gastuak | - | - |
| + Aurrekontuz kanpoko gastuak | 1.598 | 1.034 |
| + Diruzaintzako funts likidoak | 4.889 | 9.766 |
| + Finantziazioko desbideratze metatu negatiboak | - | - |
| = Diruzaintzako gerakina, guztira | 26.206 | 30.013 |
| Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta | - | - |
| Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina | - | - |
| Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina | 26.206 | 30.013 |

### V.3.3 Kirol Kontseilua

| Kontzeptua | 2010eko ekitaldia | 2009ko ekitaldia |
|---|---|---|
| + Kobratzeko dauden eskubideak | 20.913 | -812 |
| + Diru-sarreren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia | 22.641 | 1.608 |
| + Diru-sarreren aurrekontua: Itxitako ekitaldia | 9.673 | 8.065 |
| + Ordainketen itzulketak | - | - |
| + Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak | - | - |
| - Nekez kobratzeko eskubideak | -8.401 | -7.485 |
| - Aplikatzeke dauden diru-sarrerak | -3.000 | -3.000 |
| - Ordaintzeko dauden betebeharrak | 996 | 814 |
| + Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia | 171 | - |
| + Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldia | 1.056 | 1.056 |
| + Diru-sarreren itzulketa | - | - |
| - Aplikatzeke dauden gastuak | -127 | -139 |
| + Aurrekontuz kanpoko gastuak | -104 | -104 |
| + Diruzaintzako funts likidoak | 2.242 | 16.873 |
| + Finantziazioko desbideratze metatu negatiboak | - | - |
| = Diruzaintzako gerakina, guztira | 22.159 | 15.248 |
| Finantzaketa atxikia duten gastuen ondoriozko diruzaintza-gerakina | - | - |
| Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina | - | - |
| Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina | 22.159 | 15.248 |

V.4. UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN EGOERA-BALANTZE ZUZENDUA 2010eko ABENDUAREN 31n

**V.4.1. Udala**[3]

AKTIBOA

| Deskribapena | | 2010 | 2009 |
|---|---|---|---|
| A | Ibilgetua | 17.198.996 | 15.722.232 |
| 1 | Ibilgetu materiala | 11.096.241 | 10.139.816 |
| 2 | Ibilgetu ez-materiala | 243.143 | 210.861 |
| 3 | Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak | 5.859.612 | 5.371.495 |
| 4 | Herri-ondasunak | - | - |
| 5 | Finantza ibilgetua | 60 | 60 |
| C | Ibilkorra | 1.531.809 | 1.769.504 |
| 8 | Zordunak | 771.038 | 1.359.064 |
| 9 | Finantza-kontuak | 760.771 | 410.440 |
| Aktiboa, guztira | | 18.730.805 | 17.491.736 |

PASIBOA

| Deskribapena | | 2010 | 2009 |
|---|---|---|---|
| A | Funts berekiak | 14.589.203 | 13.943.960 |
| 1 | Ondarea | 6.975.751 | 7.174.052 |
| 2 | Ekitaldiko emaitza ekonomikoa | 417.040 | 181.728 |
| 3 | Kapital-diru-laguntzak | 7.196.412 | 6.588.180 |
| C | Epe luzeko hartzekodunak | 2.873.155 | 2.614.627 |
| 4 | Jasotako gordailuak, prestamenak, maileguak eta fidantzak | 2.873.155 | 2.614.627 |
| D | Epe laburreko hartzekodunak | 1.268.447 | 933.149 |
| 5 | Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak | 1.268.447 | 933.149 |
| Pasiboa, guztira | | 18..730.805 | 17.491.736 |

[3] 2010eko aurrekontu korronteko eta itxiko eskubideengatiko zordunen saldoa 127.282 euroz urritzen da. Finantza-kontuen saldoa zuzendu da, eta 900.000 euro gehiago sartu dira bai 2009an bai 2010ean. Ondarearen kontua 6.975.751 euroz handitu da 2010ean eta 7.174.052 euroz 2009an, emaitza ekonomikoaren kontuan 417.040 euroz 2010ean eta 181.728 euroz 2009an. Epe luzerako maileguen saldoa 2.392.961 euroz handitu da 2010ean eta 2.070.960 euroz 2009an. Epe laburrerako hartzekodunen saldoa 1.492.961 euroz gutxitu da 2010ean, kontu honetan 2009an gutxitzekoa 1.539.901 euro da.

**V.4.2. Musika Eskola**[4]

AKTIBOA

| Deskribapena | | 2010 | 2009 |
|---|---|---|---|
| A | Ibilgetua | 19.370 | 18.890 |
| 1 | Ibilgetu materiala | 19.370 | 18.890 |
| C | Ibilkorra | 33.665 | 36.552 |
| 9 | Zordunak | 28.776 | 26.786 |
| 10 | Finantza-kontuak | 4.889 | 9.766 |
| Aktiboa, guztira | | 53.035 | 55.442 |

PASIBOA

| Deskribapena | | 2010 | 2009 |
|---|---|---|---|
| A | Funts berekiak | 48.581 | 51.552 |
| 1 | Ondarea | 51.463 | 48.997 |
| 2 | Ekitaldiko emaitza ekonomikoa | -2.882 | 2.555 |
| D | Epe laburreko hartzekodunak | 4.454 | 3.890 |
| 5 | Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak | 1.598 | 1.034 |
| 6 | Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak | 2.856 | 2.856 |
| Pasiboa, guztira | | 53.035 | 55.442 |

[4] Ondarearen saldoa 51.463 euroz handitu da eta ekitaldiko emaitza ekonomikoa zenbateko horretan urritzen da 2010ean. Ondarearen saldoa 48.997 euroz handitu da 2009an eta ekitaldiko emaitza ekonomikoa zenbateko horretan urritzen da.

**V.4.3. Kirol Kontseilua**[5]

AKTIBOA

| Deskribapena | | 2010 | 2009 |
|---|---|---|---|
| A | Ibilgetua | 32.935 | 32.935 |
| 1 | Ibilgetu materiala | 31.424 | 31.424 |
| 3 | Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak | 1.510 | 1.510 |
| C | Ibilkorra | 32.990 | 25.210 |
| 9 | Zordunak | 30.645 | 8.233 |
| 10 | Finantza-kontuak | 2.345 | 16.977 |
| Aktiboa, guztira | | 65.925 | 58.145 |

PASIBOA

| Deskribapena | | 2010 | 2009 |
|---|---|---|---|
| A | Funts berekiak | 48.537 | 40.939 |
| 1 | Ondarea | 41.645 | 15.833 |
| 2 | Ekitaldiko emaitza ekonomikoa | 6.892 | 25.106 |
| D | Epe laburreko hartzekodunak | 17.388 | 17.206 |
| 5 | Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak | 1.099 | 917 |
| 6 | Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak | 16.289 | 16.289 |
| Pasiboa, guztira | | 65.925 | 58.145 |

[5] Ondarearen kontuaren saldoa 41.645 euroz handitu da eta ekitaldiko emaitza ekonomikoa zenbateko horretan urritu da 2010ean; 2009an kontu horien aldaketak zeinu berekoak dira eta zenbatekoa 15.833 eurokoa da.

V.5. UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU ZUZENDUA 2010eko ABENDUAREN 31n

**V.5.1 Udala**[6]

Ekitaldiko emaitza arruntak

| | Deskribapena | 2010 | 2009 | | Deskribapena | 2010 | 2009 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 61 | Langile-gastuak | 789.845 | 826.190 | 70 | Salmentak | 192.534 | 195.208 |
| 62 | Finantza-gastuak | 66.176 | 135.978 | 71 | Ondasunaren eta enpresaren errenta | 189.284 | 187.446 |
| 63 | Zergak | 2.537 | 2.478 | 72 | Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuak | 810.516 | 679.997 |
| 64 | Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak | 1.287.612 | 1.276.034 | 73 | Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak | 184.893 | 184.204 |
| 67 | Transferentzia arruntak | 133.061 | 152.329 | 76 | Transferentzia arruntak | 1.415.089 | .312.982 |
| 68 | Kapital-transferentziak | 5373 | 2.663 | 77 | Kapitalaren gaineko zergak | 11.915 | 8.101 |
| | | | | 78 | Beste diru-sarrera batzuk | 24.695 | 22.145 |
| 800 | Ekitaldiaren emaitza arrunta (hartzeko-saldoa) | 544.322 | 194.411 | 800 | Ekitaldiaren emaitza arrunta (zor-saldoa) | 0 | 0 |
| | Guztira | 2.828.926 | 2.590.083 | | Guztira | 2.828.925 | 2.590.083 |

Ekitaldiko emaitzak

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 434 | Deuseztaturiko eskubideengatik | 127.282 | 12.893 | 431 | Aitorturiko eskubideen saldoaren zuzenketengatik | 0 | 0 |
| 401 | Aitorturiko betebeharren saldoaren zuzenketengatik | 0 | -209 | 401 | Preskribaturiko betebeharrengatik | 0 | 0 |
| 84 | Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (hartzeko-saldoa) | -127.282 | -12.683 | | 84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (zor-saldoa) | | |
| 89 | Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna) | 417.040 | 181.728 | 89 | Galera garbia, guztira (saldo zorduna) | | |

[6] 2010i dagokionez: transferentzia arrunten saldoa 1.400 euroz handitzen da bai 67. kodean bai 76. kodean 2010ean; salmenten saldoan 6.351 euroz handitzen da, eta 71. kodeko saldoa zenbateko horretan urritzen da. 2009ari dagokionez, salmenten saldoa 1.429 euroz urritzen da 71. kodeko saldoa 4.037 euroz urritzen da eta 72. kodeko saldoa 5.465 euroz urritzen da.

**V.5.2. Musika Eskola**

| | Deskribapena | 2010 | 2009 | | Deskribapena | 2010 | 2009 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 61 | Langile-gastuak | 88.644 | 64.343 | 70 | Salmentak | 40.149 | 28.161 |
| 62 | Finantza-gastuak | 2.610 | 2.935 | 71 | Ondasunaren eta enpresaren errenta | 1 | 7 |
| 63 | Zergak | - | - | | | | |
| 64 | Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak | 5.301 | 7.858 | 72 | Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuak | - | - |
| 67 | Transferentzia arruntak | 250 | 180 | 73 | Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak | - | - |
| 68 | Kapital-transferentziak | - | - | 76 | Transferentzia arruntak | 52.029 | 49.704 |
| | | | | 78 | Beste diru-sarrera batzuk | 1.745 | - |
| 800 | Ekitaldiaren emaitza arrunta (hartzeko-saldoa) | | 2.556 | 800 | Ekitaldiaren emaitza arrunta (zor-saldoa) | 2.882 | - |
| 89 | Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna) | | 2.555 | 89 | Galera garbia, guztira (saldo zorduna) | 2.882 | - |

**V.5.3. Kirol Kontseilua**

| | Deskribapena | 2010 | 2009 | | Deskribapena | 2010 | 2009 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 61 | Langile-gastuak | 69.251 | 56.948 | 70 | Salmentak | 61.346 | 57.753 |
| 62 | Finantza-gastuak | 31 | 24 | 71 | Ondasunaren eta enpresaren errenta | 60 | - |
| 64 | Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak | 33.377 | 31.923 | 72 | Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuak | - | - |
| 67 | Transferentzia arruntak | 13.360 | 17.412 | 73 | Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak | - | - |
| 68 | Kapital-transferentziak | - | - | 76 | Transferentzia arruntak | 60.455 | 72.915 |
| | | | | 78 | Beste diru-sarrera batzuk | 1.050 | 746 |
| 800 | Ekitaldiaren emaitza arrunta (hartzeko-saldoa) | 6.892 | 25.106 | 800 | Ekitaldiaren emaitza arrunta (zor-saldoa) | 0 | 0 |
| 89 | Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna) | 6.892 | 25.106 | 89 | Galera garbia, guztira (saldo zorduna) | | |

## VI. UDALARI BURUZKO IRUZKIN, ONDORIO ETA AHOLKUAK

Ondoren, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, udalak, bere antolaketa-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetzeko, gure aburuz bere egin behar dituen ondorio eta gomendio nagusiak adierazten dira.

### VI.1. ALDERDI OROKORRAK

2010eko ekitaldirako aurrekontua 2010eko martxoan onetsi zuen Udalbatzaren Osoko Bilkurak.

Ez da beti-beti errespetatu lotespen juridikoko burtsetan txertatutako kredituen izaera mugatzailea.

Udalak ez ditu prestatzen kontu bateratuak bere erakunde autonomoekin.

Ez dira kalkulatzen finantzaketa atxikia duten gastuak dituzten proiektuei dagozkien finantzaketengatiko urteko desbideratzeak.

Udalaren ondasunen inbentarioa 2004koa da, baina ez ditu jasotzen ibilgetua osatzen duten elementu guztiak.

Kutxako kontaketak ez dira akta batean jasotzen eta ez dituzte sinatzen udalaren funtsen arduradunek.

*Gure aholkuak:*

- *Urteko aurrekontua indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen epeen barruan onartzea.*
- *Aurrekontu-aldaketen figuraz baliatzea gastuetarako kredituen mugaren printzipioa betetzen dela ziurtatzeko.*
- *Udalaren Erakunde Autonomoekin batera egoera-orri bateratuak prestatzea.*
- *Finantzaketa atxikia duten gastuak dituzten proiektu guztiei dagozkien finantzaketengatiko urteko desbideratzeak kalkulatzea eta aurrekontu-emaitza doitua kalkulatzeko sartzea.*
- *Udalaren ondasun eta eskubide guztien inbentarioa gaurkotzea.*
- *Udalaren inbentarioa etengabe gaurkotzea eta kontabilitatearekin lotua egotea ahalbidetuko duten prozedurak taxutzea eta aplikatzea.*
- *Udalaren kutxako kontaketa ere jasotzen den akta bat egitea.*

### VI.2. LANGILE-GASTUAK

Langileen kapituluan aitortutako betebeharrak 772.468 eurokoak dira, 2009an baino ehuneko lau gutxiago; alegia, 2010eko ekitaldian sortutako gastu guztien ehuneko 20. Kopuru hori honela banakatzen da (eurotan) eta honela alderatzen da 2009ko urtekoarekin:

| Kontzeptua | 2009 | 2010 | 2010/2009 aldea |
|---|---|---|---|
| Goi-karguak | 42.738 | 45.933 | 7 |
| Funtzionarioak | 324.856 | 305.444 | -6 |
| Langile finkoak | 96.792 | 103.080 | 7 |
| Aldi baterako lan-kontratupekoak | 1.467 | - | - |
| Gizarte-kuotak | 341.368 | 317.802 | -7 |
| Lan-kontraturik gabeko langileen gizarte-gastuak | 208 | 208 | 0,00 |
| Guztira | 807.428 | 772.467 | -4 |

Udalak 2010erako duen plantilla organikoa 2010eko maiatzean onartu zen; 12 lanpostuz osatzen da; horietatik, bat hutsik dago. 2010. urtean udalaren farmazialariaren lanpostua iraungitzen da. 2010eko abenduaren 31n 15 pertsona ari ziren lanean Udalean, ondoko koadro honek erakusten duen bezala banatuta:

| Langile-mota | Lanpostuak |
|---|---|
| Funtzionarioak | 9 |
| Administrazio-kontratupekoak | 1 |
| Aldi baterako lan-kontratupekoak | 5 |
| Guztira | 15 |

Aldi baterako lan-kontratupekoen zerrenda plantillan jasota dagoen lanpostu batez, Udalak betetzeko deia 2010ean egun zuen ordezteko lanpostu batez eta udalak aldi baterako kontratatutako hiru langilez osatzen da. Pertsona horietako bat 1998az gero etenik gabe ari da lanean udal brigadan, lana burutu arte ezarritako kontratu batez. Beste bi pertsona 2002ko urtarrilaz gero daude egoera berean. Hiru pertsona horiek kontratatzeko prozedura ez zen egin indarrean dagoen araudiak agintzen dituen hautaketa-prozeduren arabera, dei publikoaren eta meritu- eta gaitasun-printzipioetan oinarritutako proben bidez, alegia.

Udal honek ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitaterako moldatzen dituena betetzen duela egiaztatu dugu; horren ondorioz udalak 9.912 euro aurreratu dituela kalkulatu da, eta aurreztutakoa zorra aldez aurretik kitatzeko erabili da.

Gastu horien lagin bat eta kontratazio-espediente bat aztertuta ondorioztatzen da, oro har, ordaindutako ordainsariak egindako lanerako ezarrita daudenak direla, egindako atxikipenak zuzenak direla, langile-gastuak behar bezala kontabilizatuta daudela eta aplikatzekoa den araudia aplikatzen dela.

*Gure aholkuak:*

- *Udalaren plantilla organikoa indarrean dagoen araudiak agintzen dituen epeen barruan onartzea eta argitaratzea.*
- *Langileak kontratatzeko indarrean dagoen araudia betetzea, eta horretan lehia askearen, merezimenduen eta gaitasunaren printzipioak betetzea.*

## VI.3. GASTUAK, ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN

Gastu arrunten eta zerbitzuen gastuak 1,31 milioi eurokoak izan dira 2010ean, eta haien ehuneko 99,7 bete da. Hona gastu horien xehekako azalpena:

(eurotan)

| Kontzeptua | Zenbatekoa |
|---|---|
| Errentamenduak | 405 |
| Konponketak, mantentze-lana eta kontserbazioa | 287.906 |
| Materiala, hornidurak eta beste | 1.001.838 |
| Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak | 17.378 |
| Guztira | 1.307.527 |

Gastu hau ekitaldi honetan aitortutako gastu guztien ehuneko 34 da, eta ehuneko bat handitu da 2009koaren aldean.

2010ean esleitu den kontratazio-espediente bakarra egiaztatu da; eduki hau du:

| Deskribapena | Kontratu mota | Prozedura | Eskaintzak | Lizitazioaren zenbatekoa eurotan (BEZa kenduta) | Esleipenaren zenbatekoa eurotan (BEZa kenduta) | 2010ean betetako zenbatekoa eurotan (BEZa kenduta) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 0-3 urte bitarteko haurtzaindegiko hezkuntza-, garbiketa- eta jantoki-zerbitzuen antolaketa eta emaitzako laguntza teknikoa | Laguntzarako kontratua | Irekita eskaintza onenarentzat | 2 | 132.317 | 132.317 | 107.050 |

Aurreko espedienteei eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bati buruz eginiko azterketaren arabera, gastuak fakturekin eta ziurtagiriekin justifikatuta daudela ikusi da, eta nahiko modu egokian errespetatu dela aplikatzekoa den araudia, baina orobat ikusi da kapitulu honetan sartu direla Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari egindako transferentzia arruntengatiko gastuak.

*Gure aholkua:*

*Transferentzia arrunten 4. kapituluan erregistratzea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea dela-eta sortutako gastuak.*

VI.4. INBERTSIOAK

2010ean inbertsioetan egindako gastuak 1.476.824 eurokoak izan ziren; ehuneko 99ko betetze-maila izan zuten behin betiko aurreikuspenekin alderatuta; horrek 2010eko gastu guztien ehuneko 39 egiten du. 2009ko gastuekin alderatuta, ehuneko 57 urritu dira.

Inbertsiorik garrantzitsuenak ondoko koadroan adierazten direnak dira:

| Inbertsioa | Esleipenaren data | 2010ean betetako zenbatekoa |
|---|---|---|
| Kultur etxeko altzariak | 2010 | 394.614 |
| Eguneko zentroa | 2009 | 387.354 |
| Herrigunearen inguruan berdegunea sortzea | 2010 | 192.994 |
| Zolatzeak | 2010 | 106.626 |
| Guztira | | 985.588 |

Estatuko Funtsaren finantzaketaren bidez egindako lanak, hasieran aurrekontuan sartuta ez zeudenak, zuzenean sartu dira aurrekontuan, aurrekontuaren aldaketarik egin gabe, era horretan lotespen juridikoko burtsa batzuetan gastu-mugak gainditzen direla.

Gastuen lagin baten azterketa egin da; gastuok dagozkien fakturen bidez justifikaturik daude eta behar bezala kontabilizatu dira.

Ondoko kontratazio-espediente hauek ere aztertu dira:

| Deskribapena | Kontratu mota | Prozedura | Eskaintzak | Lizitazioaren zenbatekoa eurotan (BEZa kenduta) | Esleipenaren zenbatekoa (BEZa kenduta) | 2010ean betetako zenbatekoa eurotan (BEZa kenduta) |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Ingurune berdearen ekialdean izandako jarduera | Lanak | Publizitaterik gabe negoziatua, eskaintza onenarentzat | 6 | 141.420 | 86.266 | 111.387 |
| Eguneko zentroa | Lanak | Irekia | 28 | 823.335 | 576.417 | 387.354 |
| Kultur etxeko eserlekuak | Hornidura | Irekia | 9 | 63.000 | 46.620 | - |
| | Hornidura | Publizitaterik gabe negoziatua | 5 | 50.000 | 25.125 | 8.913 |

Eguneko zentroa eraikitzea 2010ean bukatu zen; 797.470 euroko kostua izan zuen (BEZ gabe), zuzendaritzari eta proiektua erredaktatzeari dagozkion ordainsariak barne. Inbertsio hori finantzatzeko 719.883 euroko diru-laguntza jaso da guztira Nafarroako Gobernutik 2009an eta 2011n (inbertsioaren kostuaren ehuneko 90). Diru-laguntza hori eskuratzeko, premien azterketa bat aurkeztu zen lehendabizi, Udalak zentro horren txostenari dagozkion zenbait gai argitzeko egindako instantzia batek dioenez, "…merkatuaren azterketa bat baita, eta ez du ezer esan nahi…". Une honetan Zentroa itxita dago eta ez du erabiltzeko eskaerarik; hala ere, 2012an 100.000 euroko diru-laguntza bat dago aurreikusita zentro hori ekipamenduz hornitzeko.

Aztertutako lanetik ondorioztatzen da ezen, oro har, aplikatzekoak diren kontratuei buruzko legeen arabera izapidetu direla espedienteak.

Esandakoaz gainera, 2009an egin eta 50.050 euroko kostua (BEZ gabe) izan zuen "San Frantzisko Xabierrekoaren Plazaren zolaztatzea" lanaren esleipena aztertu da. Lan hori beste hirugarren bati esleituta zegoen, baina uko egin zion kontratua betetzen jarraitzeari. Lan hori nahitaez burutu beharra zegoen herriko jaiak hastera zihoazenez; horregatik publizitaterik gabe negoziatzeko prozeduraren bidez esleitu zen. Enpresa bakar bati eskatu zitzaion eskaintza egin zezan.

*Gure aholkuak:*

• *Aurrekontu-aldaketen figuraz baliatzea gastuetarako kredituen mugaren printzipioa betetzen dela ziurtatzeko.*

• *Ahal delarik behintzat gutxienez hiru eskaintza eskatzea publizitaterik gabe tramitatzen diren prozedura negoziatu guztietan.*

• *Ekipamenduetan egin nahi diren munta handi samarreko inbertsio guztietan, berorien premia, izan ditzaketen erabilerak eta gerora izango dituzten kostuak aztertzen dituen bideragarritasun-plan errealista bat egitea.*

## VI.5. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Transferentzia guztien ehuneko 96 arruntak dira; 138.434 euro izan dira 2010ean, eta ehuneko 101eko betetze-maila izan dute. Gastu hau gastu guztien ehuneko lau izan da 2010ean, eta ehuneko hamar urritu da 2009koaren aldean.

Hauek izan dira transferentzia arrunt horien hartzaileak, banan-banan bereizita:

| Deskribapena | Zenbatekoa, 2010 | Zenbatekoa, 2009 |
|---|---|---|
| Musika Eskolarako diru-laguntza | 28.200 | 28.050 |
| Kirol Kontseilurako diru-laguntza | 44.600 | 53.636 |
| Familientzako diru-laguntza | 2.288 | 4.550 |
| Irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako diru-laguntza | 15.619 | 24.493 |
| EDERerako diru-laguntza | 7.989 | 7.783 |
| Beste transferentzia batzuk | 34.366 | 33.817 |
| Guztira | 133.061 | 152.329 |

Egindako azterketatik ondorioztatzen da gastu hauen izapidetzea eta kontabilizatzea ongi egina izan dela, oro har, nahiz eta Udalak ez izan lehiaketapean egin beharreko diru-laguntzak emateko oinarrizko araurik.

*Gure aholkua:*

*Dirulaguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokor bat onestea.*

VI.6. FINANTZA-ZAMA

Aurrekontuaren 3. eta 9. kapituluak baturik, 132.291 euro egiten dute: gastu guztien ehuneko hiru, hain zuzen. Gastuok, 2009koekin alderatuta, ehuneko 43 urritu badira ere, ez da ahaztu behar 2008an hitzartu zen 1,84 milioi euroko mailegua eta 2009an hitzartu zen 539.778 eurokoa bi urteko ezaldi batez hitzartu zirela biak. Horrez gainera, 2010ean hitzartu zen 322.000 euroko mailegua 2011n hasiko da ordaintzen.

Egindako azterketatik ondorioztatzen da gastuen izapidetzea eta kontabilizatzea ongi egina izan dela.

Informazio gisa, Udalaren zorraren 2030 arteko amortizazio-koadroa proposatzen dugu ondoren:

(eurotan)

| Urtea | Interesak | Amortizazioa | Urteko kuota |
|---|---|---|---|
| 2011 | 117.161 | 127.720 | 244.881 |
| 2012 | 112.433 | 145.713 | 258.146 |
| 2013 | 106.985 | 145.713 | 252.698 |
| 2014 | 101.537 | 145.713 | 247.250 |
| 2015 | 96.089 | 145.713 | 241.802 |
| 2016 | 90.641 | 145.713 | 236.354 |
| 2017 | 85.193 | 145.713 | 230.906 |
| 2018 | 79.746 | 145.713 | 225.459 |
| 2019 | 74.298 | 107.646 | 181.944 |
| 2020 | 69.992 | 107.646 | 177.638 |
| 2021 | 65.686 | 107.646 | 173.332 |
| 2022 | 61.380 | 107.646 | 169.027 |
| 2023 | 57.074 | 107.646 | 164.721 |
| 2024 | 52.768 | 107.646 | 160.415 |
| 2025 | 48.463 | 107.646 | 156.109 |
| 2026 | 44.157 | 107.646 | 151.803 |
| 2027 | 39.851 | 107.646 | 147.497 |
| 2028 | 35.545 | 107.646 | 143.191 |
| 2029 | 31.239 | 107.646 | 138.886 |
| 2030 | 26.933 | 107.646 | 134.580 |

Horrez gainera, aurreko epigrafeetan aipatu den 900.000 euroko urteko kreditu-linea ere badago.

VI.7. ZERGA BIDEZKO DIRU-SARRERAK

2010ean zerga bidezko diru-sarreren araberako aitortutako eskubideak 1,3 eurokoak izan dira; Udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 35 esan nahi du horrek, eta ehuneko 12 handitu da 2009koarekin alderatuta. Betetze-maila eta kobrantza-maila, ehuneko 126 eta ehuneko 88 dira, hurrenez hurren. Diru-sarrera hauek honela banatzen dira kapituluz kapitulu:

| Kontzeptua | Aitortutako eskubideak, 2010 | Aitortutako eskubideak, 2009 | 2010/2009 aldea % |
|---|---|---|---|
| Zuzeneko zergak | 806.259 | 781.363 | 3 |
| Zeharkako zergak | 201.065 | 90.938 | 121 |
| Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak | 292.411 | 283.278 | 3 |
| Guztira | 1.299.735 | 1.155.579 | 12 |

Emendiorik handiena 2010ean zeharkako zergetan izandako emendioagatik gertatu da, EIOZarengatik batez ere, ondoko koadroan zergarik garrantzitsuenek izandako bilakaerari dagokionez ikusten den bezala:

| Kontzeptua | Aitortutako eskubideak, 2010 | Aitortutako eskubideak, 2009 | 2010/2009 aldea % |
|---|---|---|---|
| Lurraren kontribuzio | 518.016 | 496.341 | 4 |
| Ibilgailuak | 184.893 | 184.778 | 0 |
| Lursailen balioa handitzea | 11.915 | 8.101 | 50 |
| Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zerga | 91.435 | 92.833 | -2 |
| EIOZ | 201.065 | 90.938 | 121 |
| Guztira | 1.007.324 | 872.991 | 15 |

Udalak aplikatutako tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak jasotzen duen sortako tarte ertain-altuan kokatzen dira, ondoko taula honetan ikus daitekeen bezala:

| Tributua | Udala | 2/95 Foru Legea |
|---|---|---|
| Hirilurraren gaineko kontribuzioa | 0,33 | 0,10 - 0,50 |
| Landalurraren gaineko kontribuzioa | 0,72 | |
| Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zerga | 1,4 | 1 - 1,4 |
| Lursailen balioa handitzea | | |
| Gaurkotze-koefizientea | 2tik 3,4ra | 2tik 3,8ra |
| Zerga mota | 10 | 8 - 20 |
| Eraikuntza, instalazioa eta obrak | 3,5 | 2 - 5 |

Beste balorazio-ponentzia bat egiten ez den bitartean, Udalak hirilurrei eta landalurrei aplikatzekoak zaizkien tasak bereizten jarraitzen du; ez da egokitu 2/1995az gero indarrean dagoen Toki Ogasunei buruzko Foru Legeko 139. artikuluan agintzen den lurralde-kontribuzioaren tasa bakarrera, eta horrela jokatzeko aukera ematen duen 20/2005 Foru Legearen xedapen iragankorrari heltzen dio horretarako. Horregatik, hain zuzen, landalurren kontribuzioan 2010ean aplika daitekeen tasa (0,8), 2/1995 legeak ezarritako gehieneko tasa (0,5) baino handiagoa da

Partida hauen lagin baten gainean egindako azterketatik gastuen izapidetzea eta kontabilizatzea ongi egina izan dela ondorioztatzen da.

*Gure aholkua:*

*Albait lasterren ondasunen balorazio-ponentzia berria onartzea eta lurraren kontribuzioko tasak indarrean dagoen araudira egokitzea.*

### VI.8. BESTE DIRU-SARRERA BATZUK

Diru-sarrera hauek, osorik hartuta, 2,46 milioi eurokoak dira; ehuneko 86ko betetze-maila izan dute, eta ondoko koadroan adierazten dira kopuruak eta horien bilakaera:

| Kontzeptua | Aitortutako eskubideak, 2010 | Aitortutako eskubideak, 2009 | 2010/2009 aldea (%) |
|---|---|---|---|
| Transferentzia arruntak | 1.415.089 | 1.312.982 | 8 |
| Ondare bidezko diru-sarrerak | 114.101 | 121.521 | -6 |
| Inbertsio errealak besterentzea | - | 2.890 | - |
| Kapital-transferentziak | 608.232 | 1.294.986 | -53 |
| Finantza-pasiboak | 322.000 | 539.778 | -40 |
| Guztira | 2.459.422 | 3.272.157 | -25 |

Zergaz besteko diru-sarrerak ehuneko 25 urritu dira 2009koekin alderatuta, 2010ean Eguneko zentroa finantzatzeko jasotako kapital-transferentziak urritu direlako batez ere.

Kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, oro har, egoki izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu.

### VI.9. HIRIGINTZA

Hirigintzaren kudeaketa kanpoko aholkularitza baten laguntzaz egiten da udal honetan; zerbitzu horrek 8.737 euroko gastua eragin zion 2010ean Udalari.

Ribaforadako Udalaren Plan Orokor, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen arabera egokitua, 2011ko martxoan argitaratu zen.

Udalak ez du Lurzoruaren udal-ondarearen erregistrorik, ez hirigintza-hitzarmenarenik, 2010ean era horretako hitzarmenik gauzatu ez baldin bada ere.

*Gure aholkuak:*

- *Lurzoruaren Udal Ondarea udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik eratzea eta kudeatzea, sarrerak eta irteerak, bai lursailei bai eskudiruari dagozkienak, erregistratuz, eta haiek indarrean den araudian ezarritako xedeetarako erabiltzea.*
- *Hirigintza-hitzarmenen erregistroa eratzea.*

### VI.10. GORABEHERAK ETA ZALANTZAK

Ribaforadako Udala, 2010eko abenduaren 31n, oraindik sententzia eman gabe dagoen zenbait auzitan sartuta dago; horien artean hau da aipagarriena:

Sareak berriztatzeko eta zolaztatzeko lanak, hurrenez hurren 30.641 eta 19.861 euroko zenbatekoengatik egin zituen enpresak aurkeztutako bi errekurtso.

## VII. ERAKUNDE AUTONOMOEI BURUZKO IRUZKIN, ONDORIO ETA AHOLKUAK

### VII.1 MUSIKA ESKOLA

Musika Eskolako musikako prestakuntza eskaintzen du. 2010eko aurrekontua Udalaren aurrekontuarekin batera onartzen da, eta 72.210 eurokoa da, bai hasierako aurrekontuan bai behin betikoan.

Aitortutako betebeharrak 97.286 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 135eko betetze-maila izan dute. Aitortutako eskubideak 93.924 euro dira guz-

tira, eta betetze-maila ehuneko 130ekoa da. Gastuen betetze-maila hori eta diru-sarreren betetze-maila Eskolan izan den matrikula kopurua igo delako izan da. Hori ez zen jaso aurrekontuan, aurrekontuen aldaketa eginez.

Eskolak gastaturiko 100 eurotik honako helburu hauetarako erabili da eta honakoen bidez finantzatu da euro bakoitza:

| Gastuaren izaera | Zenbatekoa | Finantza-iturria | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| Langileak | 91 | Tasak | 45 |
| Ondasun arruntak eta zerbitzuak | 5 | Transferentzia arruntak | 55 |
| Finantza-gastuak | 3 | | |
| Transf. arruntak eta inbertsio errealak | 1 | | |
| Guztira | 100 | Guztira | 100 |

2010ean, langileengatiko gastua 88.644 eurokoa izan zen, eta 21 pertsonak egin zuten lana aldi batez Musika Eskolan. Pertsona horientzako ordainsariak Musika Eskolak berak erabakitzen ditu inolako hitzarmenetara lotu gabe. Orduko ordainsaria urritu egin zen, 12/2010 Foru Legearen arabera; horrek 609 euro aurreztea ekarri zuen.

Langile-gastu horiei buruz egindako azterketatik, oro har, indarrean dauden arauak egoki betetzen direla eta gastu horiek egoki kontabilizatzen direla ondorioztatzen da.

Eskolak dituen diru-sarrerak, ehuneko 45 ikasleek ordaintzen dituzten kuotetatik datoz, ehuneko 25ean Nafarroako Gobernuak egindako transferentzietatik, eta gainerako ehuneko 30a Udalak jartzen du. 2011-2012 ikasturterako hitzarmen bat sinatu da Fustiñanako Udalarekin, Musika Eskolak bere zerbitzuak herri hartarako ere eskain ditzan.

Gure aholkuak:

• Aurrekontu-aldaketen figuraz baliatzea gastuetarako kredituen mugaren printzipioa eta aurrekontuaren alorrean behar den oreka betetzen direla ziurtatzeko.

• Langileak kontratatzeko indarrean dagoen araudia betetzea, eta horretan lehia askearen, merezimenduen eta gaitasunaren printzipioak betetzea.

• Lan-kontratupeko langileen ordainsariei dagozkien baldintzak hitzarmen kolektibo bati lotzea.

VII.2. KIROL KONTSEILUA

Kirol Kontseiluak kirol-jarduerak egiten ditu. 2010eko aurrekontua Udalaren aurrekontuarekin batera onartzen da, eta 117.989 eurokoa da, bai hasierako aurrekontuan bai behin betikoan.

Aitortutako betebeharrak 116.019 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 98ko betetze-maila izan dute. Aitortutako eskubideak 122.912 euro dira guztira, eta betetze-maila ehuneko 104koa da.

Gastuko 100 eurotik helburuotarako erabili da euro bakoitza eta honakoen bidez finantzatu da:

| Gastuaren izaera | Kopurua | Finantza-iturria | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| Langileak | 59 | Tasak | 51 |
| Ondasun arruntak eta zerbitzuak | 29 | Transferentzia arruntak | 49 |
| Transferentzia arruntak | 12 | | |
| Guztira | 100 | Guztira | 100 |

2010ean, langileengatiko gastua 68.821 eurokoa izan zen, eta bost pertsonak egin zuten lana aldi batez Kirol Kontseiluan. Pertsona horientzako ordainsariak Kirol Kontseiluak berak erabakitzen ditu inolako hitzarmenetara lotu gabe. Orduko ordainsaria urritu egin zen, 12/2010 Foru Legearen arabera; horrek 207 euro aurreztea ekarri zuen.

Langile-gastu horiei buruz egindako azterketatik, orokorrean, indarrean dauden arauak egoki betetzen direla eta gastu horiek egoki kontabilizatzen direla ondorioztatzen da.

Kirol Kontseiluaren baliabideak erabiltzaileen kuotetatik datoz ehuneko 51n, Udalaren transferentzietatik ehuneko 45ean eta gainerako ehuneko laua Nafarroako Gobernuak jarria da.

Kirol Kontseiluak badu kontabilitatean erregistratu gabe dagoen kontu korronte bat, batez besteko saldoa 2.418 eurokoa izan duena.

*Gure aholkuak:*

• *Lan-kontratupeko langileen ordainsariei dagozkien baldintzak hitzarmen kolektibo bati lotzea.*

• *Kirol Kontseilua titularra den finantza-kontu guztiak kontabilitatean erregistratzea.*

• *Langileak kontratatzeko indarrean dagoen araudia betetzea, eta horretan lehia askearen, merezimenduen eta gaitasunaren printzipioak betetzea.*

Txosten hau auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2012ko apirilaren 26an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

# Erriberriko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko maiatzaren 7an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Erriberriko Udalaren 2010eko ekitaldiaz emandako fiskalizazio-txostena ikusirik, ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñea, 2012ko maiatzak 7.

Ganberako burua, Alberto Catalán Higueras

## Erriberriko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

### AURKIBIDEA

**I.** Sarrera (30. or.).

**II.** Helburua (32. or.).

**III.** Norainokoa (32. or.).

**IV.** Iritzia (32. or.).

IV.1. Kontu Orokorra (32. or.).

IV.2. Legezkotasuna (33. or.).

IV.3. 2010eko abenduaren 31ko egoera ekonomiko eta finantzarioa (33. or.).

IV.4. Ganbera honek 2006ko fiskalizazio-txostenean eman zituen aholkuak noraino bete diren (34. or.).

**V.** Udalaren 2010eko kontu orokorraren laburpena (35. or.).

V.1. Aurrekontuaren 2010eko ekitaldiko betetze-egoera (36. or.).

V.2. Udalaren 2010eko aurrekontuaren emaitza (36. or.).

V.3. Udalaren diruzaintzako gerakinaren egoera-orria 2010eko abenduaren 31n (37. or.).

V.4. Udalaren 2010eko abenduaren 31ko egoerari buruzko balantzea (38. or.).

V.5. Udalaren 2010eko galeren eta irabazien kontua (39. or.).

**VI.** Udalari buruzko iruzkin, ondorio eta aholkuak (40. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (40. or.).

VI.2. Langile-gastuak (40. or.).

VI.3. Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak (41. or.).

VI.4. Transferentzia-gastuak (41. or.).

VI.5. Inbertsioak (42. or.).

VI.6. Finantza-zama (43. or.).

VI.7. Zerga bidezko diru-sarrerak (44. or.).

VI.8. Bestelako diru-sarrerak (45. or.).

VI.9. Hirigintza (46. or.).

VI.10. Gorabeherak eta zalantzak (46. or.).

### I. SARRERA

Udalbatzak, 2011ko ekainaren 11ko Osoko Bilkuran, Kontuen Ganberari 2010eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txosten bat eskatzea erabaki zuen.

Eskatutakoak betetzeko, Ganbera honen 2011ko Fiskalizazio Programan sartu zen azterlan hori egitea. 2008ko abenduan, Ganberak txosten bat igorri zuen udalaren 2006ko ekitaldiko kontuei buruz.

Erriberriko udalerriak 3.759 biztanle zituen 2010eko abenduaren 31n. Honako hauek dira udal horren kopuru ekonomiko aipagarrienak:

| Erakundea | Zenbatekoa | | Langileak, 2010-12-31n |
|---|---|---|---|
| | Aitortutako betebeharrak | Aitortutako eskubideak | |
| Erriberriko Udala | 5.495.622 | 7.491.006 | 28 |

Udalak ez du ez erakunde autonomorik ez sozietate publikorik eratu, eta mankomunitate hauetan hartzen du parte:

• Mairagako Mankomunitatea, zeinaren bidez ematen baititu uraren ziklo integralaren zerbitzuak eta hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua.

• Nafarroako Erdialdeko Kirol, Gizarte eta Kultur Zerbitzuen Mankomunitatea.

• Erriberriko eskualdeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea

Laburbilduz, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri direnak dira:

| Zerbitzua | Udala | Mankomunitatea | Zerbitzu-kontratuak |
|---|---|---|---|
| Zerbitzu administratibo orokorrak | X | | |
| Udalzaintza | X | | |
| Musika Eskola | X | | |
| Etxez etxeko laguntza-zerbitzua | | X | |
| Hilerria | | | X |
| Hirigintza | X | | |
| Uraren presio handiko hornidura | | X | |
| Uraren behe presioko hornidura | | X | |
| Hiri hondakinak | | X | |
| Bideak garbitzea | X | | |
| Kultur etxea | X | | |
| Oinarrizko gizarte-zerbitzua | | X | |
| Udal kiroldegia | X | | |
| Igerilekuak | X | | |
| Kirol jardueren kudeaketa | | X | |
| Zentro mediko eta hezkuntzakoen mantentzea | X | | |
| Liburutegia | X | | |
| Udalaren futbol zelaia | X | | |
| Ludoteka | X | | |
| Gizarte Etxea | X | | |

Erriberriko Udalari 2010eko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa, funtsean, honako hau izan da:

• Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.

• Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.

• Nafarroako Toki Araubidea Gaurkotzeari buruzko 11/2004 Foru Legea.

• Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko 7/1985 Legea.

• 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena.

• Langileen Estatutuari buruzko 1/1995 Errege Lege Dekretua.

• Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legeak toki entitateei buruz ezarritako berezitasunekin.

• Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.

• 35/2002 Foru Legea, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzkoa.

• Ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legea, Defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitatean moldatzen dituena.

• Urriaren 26ko 13/2009 Errege Dekretu Legea, Enplegurako eta tokiko iraungarritasunerako estatuko funtsa sortu zuena.

• Uztailaren 5eko 15/2010 Legea, merkataritza-eragiketen berankortasunaren aurkako neurriei buruzkoa.

• Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, Nafarroako toki administraziorako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak.

• Udalaren 2010eko aurrekontuaren exekuzio-oinarriak eta gainerako barne arauak.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, Udalaren Kontu Orokorrari buruz dugun iritzia agertzen dugu; bosgarrenean, berriz, kontu horren laburpen bat jaso dugu. Seigarrenean, erakundearen antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta aholkuak biltzen dira. Honekin batera doan eranskinean, udalaren 2010eko abenduaren 31ko organigrama bildu dugu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu udaleko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

## II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Erriberriko Udalaren 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorraren arauzkotasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenak honako puntu hauei buruz dugun iritzia agertzea du helburua:

• Ea Erriberriko Udalaren 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorrak irudi zehatza erakusten duen alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreren aurrekontuaren likidazioari eta 2010eko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaituriko urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotzen diren kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

• Zenbateraino bete duten Udalak 2010ean izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legedia.

• Udalaren finantza-egoera 2010eko abenduaren 31n.

• Ganbera honek 2006ko fiskalizazio txostenean eman zituen aholkuak noraino bete diren.

Txosten honetan, Udalak ezarritako barne kontroleko sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetzeko edota osatzeko egokitzat jo ditugun aholkuak ere gehitu ditugu.

## III. NORAINOKOA

Kontuen Ganberak Erriberriko Udalaren 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorraren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin du, honako finantza-egoera hauek kontuan hartuta, besteren artean:

• Aurrekontu-betetzearen egoera.

• Aurrekontuaren emaitza eta diruzaintzako gerakinaren egoera.

• Egoera-balantzea eta Galeren eta Irabazien Kontua.

• Kontu Orokorraren eranskinak: memoria, zorraren egoera eta kontu-hartzailearen txostena, besteak beste.

Lan hau Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautaproba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz osatu da. Prozedura horien artean laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa erabili dira.

Zehazki, aurrekontuen eta finantza egoera-orrien edukia eta koherentzia eta aplikaturiko oinarrizko prozedurak aztertu dira; orobat ebaluatu dira Udalaren antolaketa, kontabilitateko eta barne kontroleko alderdi nabarmenenak ere.

2010eko abenduaren 31n zuen finantza-egoera aztertzeko, gisa honetako lanetan erabiltzen dituen magnitude, ratio eta adierazleak aplikatu ditu Ganbera honek.

## IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren irismenaren neurrian, Erriberriko Udalaren 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorra aztertu dugu; kontu horren prestaketaren eta edukiaren erantzukizuna Udalarena berarena da.

Gure azterketa-lanetik ondoko iritzia atera dugu ondorioz:

### IV.1. KONTU OROKORRA

Gure iritzian, Erriberriko Udalaren 2010eko ekitaldiko Kontu Orokorrak zehazki jasotzen ditu, alderdirik behinenetan, gastuen eta diru-sarreren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar adina informazio biltzen du hura egoki interpretatu eta ulertzeko, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoko arau-esparruaren arabera, eta, bereziki, hartan biltzen diren kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera.

## IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren irismenaren neurrian, esan daiteke Udalaren jarduera ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezkotasun-printzipioari jarraituz egiten dela.

## IV.3. 2010eko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Taula honetan adierazten da zer bilakaera izan duten azken urteotan aurrekontuen likidazioek eta adierazle ekonomiko-finantzario nagusiek:

| | 2010 | 2009 | 2008 | 2007 | 2006 |
|---|---|---|---|---|---|
| Diru-sarrerak guztira | 7.491.006 | 9.418.830 | 5.852.440 | 5.745.815 | 3.715.522 |
| Gastuak, guztira | 5.495.622 | 10.043.533 | 7.007.247 | 3.921.732 | 3.702.870 |
| | | | | | |
| Diru-sarrera arruntak – Gastu arruntak | 345.491 | 726.504 | 1.016.996 | 1.286.096 | 671.094 |
| Gainerako diru-sarrerak - Gainerako gastuak | 1.649.893 | -1.351.207 | - 2.171.803 | 537.988 | -658.441 |
| Aurrekontu-emaitza | 1.995.384 | -624.703 | - 1.154.807 | 1.824.083 | 12.652 |
| Emaitza doitua | -79.814 | 990.477 | - 1.083.955 | 421.939 | 292.288 |
| | | | | | |
| Aurrezki gordina | 493.708 | 769.301 | 1.042.853 | 1.306.085 | 681.480 |
| Aurrezki garbia | 271.353 | 652.670 | 943.219 | 1.206.264 | 596.698 |
| Zorpetze-maila | % 5,83 | % 3,24 | % 2,63 | % 2,69 | % 2,92 |
| Zorpetze-muga | % 12,95 | % 21,37 | % 27,56 | % 35,19 | % 23,43 |
| Diruzaintza-gerakina | 1.141.901 | 620.144 | 1.481.585 | 2.220.898 | 793.321 |
| Atxikitako gerakina | 2.403.075 | 515.106 | 2.069.198 | 2.008.477 | 299.014 |
| Gerakina, gastu orokorretarako | - 1.261.174 | 105.038 | -587.613 | 212.421 | 494.307 |
| Zor bizia | 6.141.808 | 4.076.947 | 850.781 | 924.558 | 1.004.389 |

Erriberriko Udalaren hasierako aurreikuspenak 4.367.719 eurokoak ziren 2010ean; aurreikuspen horiek, ordea, 1.510.310 euroko emendio bat izan zuten, aurrekontuen aldaketen bidez (ehuneko 34ko emendioa); emendio hori inbertsioetarako gastuen eta gastu horien finantzaketaren emendioaz justifikatzen da.

Aitorturiko betebeharrak 5.495.622 eurokoak dira; ehuneko 94ko betetze-maila eta ehuneko 87ko ordainketa-portzentajea izan dute. Diru-sarrerei dagokienez, aitortutako eskubideak 7.491.006 eurokoak dira, eta ehuneko 128ko betetze-maila eta ehuneko kobrantza-portzentajea izan dute.

Gastuko 100 eurotik helburuotarako erabili da euro bakoitza eta honakoen bidez finantzatu da:

| Gastuaren izaera | Zenbatekoa | Finantza-iturria | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| Langileak | 27 | Zerga bidezko diru-sarrerak | 27 |
| Bestelako gastu arruntak | 34 | Transferentziak | 36 |
| Inbertsioak | 35 | Ondare bidezko diru-sarrerak | 4 |
| Finantza-zama | 4 | Inbertsioen besterentzea | 4 |
| | | Bankuen maileguak | 29 |
| | 100 | | 100 |

Aurrezki gordina 493.708 eurokoa izan da, baina zorpetzeak eragindako finantza-zamak –222.356 euro– aurrezki horren parte bat jaten du, eta 271.353 euroko aurrezki garbia geratzen da. Udalaren zorpetze-maila ehuneko 5,83koa da; zazpi puntuko portzentajea geratzen zaio, beraz, gehieneko zorpetze-mailara iristeko.

2010eko abenduaren 31n, zor bizia 6.141.809 eurokoa da: zor bizi hori erakunde honen diru-sarrera arrunt guztien ehuneko 161 da; portzentaje hori gaur egun zor berriak egiteko dagoen legezko muga, ehuneko 75, baino askoz gorago dago.

Udalaren aurrekontu-emaitza doitua eta diruzaintza-gerakina ondoko koadro honetan adierazten dira:

| Magnitudea | Eurotan |
|---|---|
| Aurrekontu -emaitza doitua | -79.814 |
| Diruzaintza -gerakina, guztira | 1.141.901 |
| Gastu orokorretako diruzaintzako gerakina | -1.261.174 |

Udalaren aurrekontu-emaitza doitua (-79.814 euro) 2009an izan zena baino nabarmen txikiagoa da (990.477 euro). Udalaren gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinak balio negatiboak ditu; horregatik, bada, 270/1998 Foru Dekretuaren 103. artikuluan aurreikusten diren neurriak ezarri beharko dira. 2009an, Udalaren gastu orokorretarako gerakina positiboa izan zen: 105.038 euro.

2010ean gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinaren egoera negatiboaren arrazoia diruzaintza-gerakinak 2.403.074 euroko balio atxikiak izatea da, hau da, udalak hitzartuta du kopuru hori, 2010. urtearen bukaeran udalaren diruzaintzaren egoera zailari aurre egiteko hitzartutako 2.139.000 euroko mailegua dela-eta, batez ere.

Diruzaintzaren egoera zail horren arrazoi nagusia udalak aitortu eta agentzia exekutiboan dauden diru-sarrerak dira (1.915.471 euro); hain zuzen ere, horiek sortzen baitute txosten honen VI.3 puntuan aipatu dugun likidezia-arazoa, UER-3 hirigintza-ekimenak, kooperazio-sistemaz bideratuak, eragina.

## IV.4. GANBERA HONEK 2006ko FISKALIZAZIO-TXOSTENEAN EMAN ZITUEN AHOLKUAK NORAINO BETE DIREN

Oro har, esan daiteke Ganbera honek 2006ko fiskalizazio-txostenean eman zituen aholku nagusi guztiak bete direla.

Laburbilduz, eta azken ondorio gisa, Ganbera honen iritzian Erriberriko Udala bere aurrekontua gaur egungo krisi ekonomikora egokitzen ari da. Inbertsio handiak egin diren aldi baten ondoren ari da hori gertatzen; azkeneko bost urte hauetan, izan ere, 16 milioi euroko inbertsioak egin baitira, zorpetuz eta udal ondarea salduz finantzaturik gehienbat.

2010eko zorpetzeko ahalmen teorikoa txikitu egingo da hurrengo ekitaldietan, ezaldia duten maileguak amortizatzen hasitakoan.

Hurrengo ekitaldietan Udalak inbertsio horiek mantentzen, gainerako gastu arruntetan aurrezteko eta gastua mugatzeko neurriak hartzen eta diru-sarrera horiek mantentzen edo handitzen zentratu beharko du bere jarduera.

Gai honi dagokionez, esan beharra dago arazo gehiena konponduko litzatekeela UER-3 hirigintza-ekimenaren ondoriozko funtsak eskuratzea lortuko balitz.

*Hala eta guztiz ere, ondoko puntu hauei buruz gogoeta egin beharko litzatekeela iruditzen zaigu:*

*Diru-sarrerei dagokienez*

*• Gaur egun dauden zergak, zerga-tipoak eta tasak zabaldu edota eguneratzea aztertuko duen Zerga Kontroleko Udal Plan bat ezartzea.*

*• Herri-lurretan eragina duten kanonak berrikustea.*

*• Tasak eta prezio publikoak berrikustea.*

*• Zerbitzuak emateko behar beharrezkoa ez den ondarea besterentzea.*

*Gastuei dagokienez*

*• Zerbitzu jakin batzuetarako lizitazio berriak egitea edo kontratu-baldintzak negoziatzea.*

*• Obrak, ahal denean, zerga berezien bidez finantzatzea.*

*• Gastua optimizatzea, horretarako diru-laguntzak emateko konpromisoak hartu diren hitzarmenak berrikusiz.*

*• Zorra berriro negoziatzea eta ezaldiak eskatzea.*

*Neurri hauek guztiak Udalaren aurrekontu-politika epe luzera orientatuko duen plan ekonomiko-finantzario baten barruan aztertu beharko lirateke.*

## V. UDALAREN 2010eko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren, Udalaren 2010eko Kontu Orokorrak jasotzen dituen finantzen egoera-orrien laburpen bat ematen dugu.

V.1. AURREKONTUAREN 2010eko EKITALDIKO BETETZE-EGOERA.

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

| Gastuen kapituluak | Hasierako aurreikus-pena | Aldaketak | Behin betiko aurreikus-penak | Aitortutako bete-beharrak | Betetzea (%) | Ordain-ketak | Ordain-ketak (%) | Ordain-tzeke dagoena |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 Langile-gastuak | 1.553.840 | -33.400 | 1.520.440 | 1.459.433 | 96,0 | 1.435.573 | 98,37 | 23.860 |
| 2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak | 1.445.279 | 125.100 | 1.570.379 | 1.567.074 | 99,8 | 1.393.340 | 88,91 | 173.734 |
| 3 Finantza-gastuak | 166.600 | -8.000 | 158.600 | 148.218 | 93,5 | 144.924 | 97,78 | 3.294 |
| 4 Transferentziak | 240.900 | 80.829 | 321.729 | 291.242 | 90,5 | 213.437 | 73,28 | 77.805 |
| 6. Inbertsio errealak | 881.200 | 1.336.781 | 2.217.981 | 1.951.075 | 88,0 | 1.518.409 | 77,82 | 432.666 |
| 7 Kapital-transferentziak | 5.000 | 0 | 5.000 | 4.443 | 88,9 | 4.253 | 95,72 | 190 |
| 9. Finantza-pasiboak | 74.900 | 0 | 74.900 | 74.138 | 99,0 | 74.138 | 100,00 | 0 |
| Gastuak, guztira | 4.367.719 | 1.510.310 | 5.869.029 | 5.495.622 | 93,6 | 4.784.074 | 87,05 | 711.548 |

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

| Diru-sarreren kapituluak | Hasierako aurreikus-pena | Aldaketak | Behin betiko aurreikus-penak | Aitortutako eskubideak | Betetzea (%) | Kobran-tzak | Kobran-tzak (%) | Kobratzeke dagoena |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 Zuzeneko zergak | 1.137.364 | 0 | 1.137.364 | 1.238.601 | 108,9 | 1.063.130 | 85,83 | 175.471 |
| 2 Zeharkako zergak | 300.000 | 0 | 300.000 | 193.587 | 64,5 | 149.548 | 77,25 | 44.039 |
| 3 Tasak eta bestelako diru-sarrerak | 535.800 | 0 | 535.800 | 579.105 | 108,1 | 517.449 | 89,35 | 61.656 |
| 4 Transferentzia arruntak | 1.204.700 | 275.000 | 1.479.700 | 1.469.762 | 99,3 | 1.334.576 | 90,80 | 135.186 |
| 5 Ondare bidezko diru-sarrerak | 319.855 | 0 | 319.855 | 330.401 | 103,3 | 279.963 | 84,73 | 50.438 |
| 6 Inbertsioen besterentzea | 500.000 | 0 | 500.000 | 332.657 | 66,5 | 332.657 | 100,00 | 0 |
| 7 Kapital-transferentziak | 370.000 | 692.188 | 1.062.188 | 1.207.893 | 113,7 | 529.662 | 43,85 | 678.231 |
| 8. Finantza-aktiboak | 0 | 380.875 | 380.875 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 9. Finantza-pasiboak | 0 | 153.247 | 153.247 | 2.139.000 | 1.395,8 | 2.139.000 | 100,00 | 0 |
| Diru-sarrerak guztira | 4.367.719 | 1.501.310 | 5.869.029 | 7.491.006 | 127,6 | 6.345.985 | 84,71 | 1.145.021 |

V.2. UDALAREN 2010eko AURREKONTUAREN EMAITZA

| Kontzeptua | 2010eko ekitaldia | 2009ko ekitaldia |
|---|---|---|
| + Aitorturiko eskubide garbiak | 7.491.006,16 | 9.418.829,78 |
| - Aitorturiko betebehar garbiak | 5.495.622,08 | 10.043.532,56 |
| = Aurrekontu-emaitza | 1.995.384,08 | (624.702,78) |
| Doitzeak | | |
| - Finantzaketaren desbideratze positiboa G.F.A. | 2.339.213,51 | 580.030,57 |
| + Finantzaketaren desbideraketa negatiboa G.F.A. | 35.912,66 | 2.195.210,53 |
| + Diruzaintzako gerakinaz finantzaturiko gastuak | 228.102,47 | 0 |
| = Aurrekontu-emaitza doitua | (79.814,30) | 990.477,18 |

V.3. UDALAREN DIRUZAINTZAKO GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2010eko ABENDUAREN 31n

| Kontzeptua | 2010eko ekitaldia | 2009ko ekitaldia |
|---|---|---|
| + Kobratzeko dauden eskubideak | 2.185.709,80 | 3.116.361,93 |
| + Diru-sarreren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia | 1.145.021,50 | 2.387.352,98 |
| + Diru-sarreren aurrekontua: Itxitako ekitaldia | 2.650.386,90 | 1.071.605,71 |
| + Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak | 305.772,15 | 473.225,77 |
| Gastuak ordaintzea | 0 | 0 |
| - Bilketa zaileko eskubideak | -1.915.470,75 | -815.822,53 |
| - Aplikatzeke dauden diru-sarrerak | 0 | 0 |
| - Ordaintzeko dauden betebeharrak | 2.351.341,62 | 3.313.156,48 |
| + Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia | 711.549,36 | 1.871.900,50 |
| + Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldia | 1.036.697,78 | 93.625,65 |
| + Diru-sarreren itzulketa | 30.134,27 | 334,40 |
| + Aurrekontuz kanpoko gastuak | 572.960,21 | 1.347.295,93 |
| + Diruzaintzako funts likidoak | 1.101.797,48 | 275.716,01 |
| + Finantziazioko desbideratze metatu negatiboak | 205.735,00 | 541.222,28 |
| = Diruzaintzako gerakina, guztira | 1.141.901 | 620.143,43 |
| Finantzaketa atxikia duten gastuen ondoriozko diruzaintza-gerakina | 55.533,63 | 82.526,74 |
| Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina | 2.347.540,97 | 432.578,93 |
| Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina | -1.261.173,94 | 105.038,07 |

Udalak UER3 hirigintzako ekimenak eragin litzakeen kobrantzak nekez eskuratzekotzat ematean eta diruzaintzako maileguaren 2,1 milioiak funtsean atxikitako baliabidetzat ematean erakutsi duen zuhurtziazko irizpidea azpimarratu nahi dugu.

V.4. UDALAREN 2010eko ABENDUAREN 31ko EGOERARI BURUZKO BALANTZEA

Aktiboa

| | Deskribapena | 2010 | 2009 |
|---|---|---|---|
| A | Ibilgetua | 24.128.961,15 | 22.846.954,93 |
| 1 | Ibilgetu materiala | 13.865.017,41 | 13.345.645,40 |
| 2 | Ibilgetu ez-materiala | 397.081,84 | 274.583,34 |
| 3 | Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak | 6.000.144,49 | 5.635.405,80 |
| 4 | Herri-ondasunak | 3.865.937,19 | 3.590.540,17 |
| 5 | Finantza-ibilgetua | 780,22 | 780,22 |
| C | Ibilkorra | 5.202.978,03 | 4.211.004,48 |
| 8 | Zordunak | 4.101.180,55 | 3.932.184,46 |
| 9 | Finantza-kontuak | 1.101.797,48 | 275.716,01 |
| 10 | Aldizkatzearen ondoriozko doitzeak | 0 | 3.104,01 |
| | Aktiboa, guztira | 29.331.939,18 | 27.057.959,41 |

Pasiboa

| | Deskribapena | 2010 | 2009 |
|---|---|---|---|
| A | Funts berekiak | 20.934.298,95 | 19.667.855,70 |
| 1 | Ondarea eta erreserbak | 14.573.158,94 | 12.515.600,66 |
| 2 | Emaitza ekonomikoak – onura (galera) | (95.510,40) | 2.057.558,34 |
| 3 | Kapital-diru-laguntzak | 6.361.140,01 | 5.094.696,70 |
| C | Epe luzeko hartzekodunak | 5.913.208,95 | 4.002.847,23 |
| 4 | Jasotako gordailuak, maileguak eta fidantzak | 5.913.208,95 | 4.002.847,23 |
| D | Epe laburreko hartzekodunak | 2.579.941,62 | 3.387.256,48 |
| 5 | Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak | 2.579.941,62 | 3.387.256,48 |
| | Pasiboa, guztira | 29.331.939,18 | 27.057.959,41 |

## V.5. UDALAREN 2010eko GALEREN ETA IRABAZIEN KONTUA

### Ekitaldiko emaitza arruntak

| Zorra | | | Hartzeko | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Deskribapena | 2010 | 2009 | Deskribapena | 2010 | 2009 |
| 3 Hasierako izakinak | 0 | 0 | 3 Bukaerako izakinak | 0 | 0 |
| 39 Izakinen balio-galtzeen hornidurak | 0 | 0 | 39 Izakinen balio-galtzeen hornidura | 0 | 0 |
| 60 Erosketak | 0 | 0 | 70 Salmentak | 353.769,70 | 299.101,42 |
| 61 Langile-gastuak | 1.462.873,70 | 1.515.964,87 | 71 Ondasunaren eta enpresaren errenta | 434.659,97 | 280.411,04 |
| 62 Finantza-gastuak | 148.217,53 | 42.797,27 | 72 Produkzioari eta inportazioari loturiko tributuak | 975.739,50 | 986.394,42 |
| 63 Tributuak | 18,88 | 335,78 | 73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak | 189.729,59 | 187.130,67 |
| 64 Lanak, zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuak | 1.566.717,95 | 1.099.784,96 | 75 Ekitaldiko emaitzetara aldaturiko diru-laguntzak eta dohaintzak | 0 | 0 |
| 65 Gizarte-prestazioak | 0 | 0 | 76 Transferentzia arruntak | 1.378.311,84 | 1.233.661,97 |
| 66. Ustiapeneko diru-laguntzak | 0 | 0 | 77 Kapitalaren gaineko zergak | 262.022,08 | 536.554,87 |
| 67 Transferentzia arruntak | 291.241,50 | 214.532,00 | 78 Bestelako diru-sarrerak | 158.673,61 | 1.784.497,80 |
| 68 Kapital-transferentziak | 4.443,14 | 4.613,88 | 79 Beren helbururako aplikaturiko hornidurak | 0 | 0 |
| 69 Amortizazio eta horniduretarako hornidura, ekitaldikoa | 511.541,17 | 339.901,98 | | | |
| 800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna) | 0 | 2.089.821,45 | 800 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna) | 232.147,58 | 0 |
| Guztira | 3.985.053,87 | 5.307.752,19 | Guztira | 3.985.053,87 | 5.307.752,19 |

### Ekitaldiko emaitzak

| Zorra | | | Hartzeko | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Deskribapena | 2010 | 2009 | Deskribapena | 2010 | 2009 |
| 80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna) | 232.148 | 0 | 80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna) | 0 | 2.089.821 |
| 82 Ekitaldiko aparteko emaitzak (saldo zorduna) | 0 | 0 | 82 Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna) | 175.129 | 0 |
| 83 Balore-karteraren emaitzak (saldo zorduna) | 0 | 0 | 83 Balore-karteraren emaitzak (saldo hartzekoduna) | 0 | 0 |
| 84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa | 38.492 | 32.263 | 84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa | 0 | 0 |
| 89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna) | 0 | 2.057.558 | 89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna) | 95.510 | 0 |
| Guztira | 270.639 | 2.089.821 | Guztira | 4270.639 | 2.089.821 |

## VI. UDALARI BURUZKO IRUZKIN, ONDORIO ETA AHOLKUAK

Ondoren, Kontuen Ganbera honek Udalaren funtzionamenduaz atera dituen ondorio nagusiak eta, haren aburuz, Udalak, bere antolamendu, prozedura, kontabilitate eta barne-kontroleko sistemak hobetzeko, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako jarraitu beharko lituzkeen aholku nagusiak aipatzen dira.

### VI.1. ALDERDI OROKORRAK

Kontu Orokorra onartzeko dago oraindik txosten hau ematen den datan. Hala ere, eskaera egin denez, eta finantzen egoera-orriak prestatuta daudenez, lana egitea erabaki dugu, osoko bilkurak kontuak oraindik onartu gabe badauzka ere.

Gure aholkua:

• Kontu Orokorra indarrean dagoen legediak agintzen duen epearen barruan onartzea.

• Kontrol sistema egoki bat ezartzea, inbertsio errealen besterentzea Udalaren egoera-balantzean behar bezala ager dadin. Zenbait kasutan alta balantzean eskuratzea gertatu denean jaso ordez besterentzea egin den unean jasotzen dela ikusi dugu.

### VI.2. LANGILE-GASTUAK

Langileen kapituluan 1.459.433 euro egiten dute aitortutako betebeharrek; alegia, 2010eko ekitaldian aitortutako gastu guztien ehuneko 27. Ehuneko 96ko neurri batean bete dira, eta 2009ko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko lau egin dute behera.

Hona kontuak banakatuta, 2009koekin alderatuta:

| | Aitortutako betebeharrak | | Aldea, ehunekotan |
|---|---|---|---|
| | 2010 | 2009 | |
| Goi-karguak | 47.648 | 51.266 | -7 |
| Funtzionarioak | 408.413 | 426.725 | -4 |
| Langile finkoak | 522.128 | 523.149 | - |
| Bestelako langileak | 540 | 6.869 | -92 |
| Gizarte-zamak | 480.703 | 505.263 | -5 |
| 1. kapitulua, guztira | 1.459.433 | 1.513.231 | -4% |

Udalak 2010erako duen plantilla organikoak 40 lanpostu dauzka. Horietatik 11 daude hutsik. Hona lanpostu horien taula:

| | Lanpostuak | Aktiboa | Lanpostu hutsak | Betetako lanpostu hutsak. |
|---|---|---|---|---|
| Funtzionarioak | 21 | 15 | 6 | 0 |
| Langile finkoak | 4 | 2 | 1 | 1 |
| Lanaldi mugatuko lan kontratupekoak | 12 | 8 | 3 | 1 |
| Bitartekoak | 3 | 3 | 0 | 0 |
| Guztira | 40 | 28 | 10 | 2 |

Hau da, langile efektiboak 28 pertsona dira: 15 funtzionario, 2 lan-kontratudun finko, 8 lanaldi mugatuko lan-kontratudun eta 3 bitarteko kontratudun. Bitarteko langile hauei dagokienez, esan beharra dugu 5 urteko antzinatasuna dutela denen Udalean.

2010eko ekitaldi honetan Udalak kontratu finkoko langileak hartu ditu. Horrez gainera, aldi baterako kontratuak ere egin ditu, ESNean iragarkiak jarriz eta arauzko probak eginez. Aztertu ditugun kontratazio-prozesuetan ez dugu merituaren eta gaitasunaren printzipioa hausten duten gertaerarik ikusi. Beste alde batetik, kontratazio-prozesu hauei buruz ez dago legezkanpokotasun-txostenik.

Udalak emandako informazioak erakusten duenez, 40 pertsonaz osatzen da 2010eko ekitaldian Udalean lanean jardun duen langile-multzoa. Langile horiei ordainsari hauek aplikatzen zaizkie:

• Funtzionarioak: foru-legedian ezarritako ordainsariak dauzkate.

• Lan-kontratupeko langileak: Nafarroako Gobernuaren lan-kontratupeko langileen hitzarmen kolektiboa.

Udal langileei 12/2010 Foru Legean aurreikusitako murrizketak aplikatu zaizkie. Murrizketa horien zenbatekoa ez da bideratu zorra ordaintzera.

Langile-gastu horiei buruz egindako azterketatik eta ofizial administraria izateko lanpostu bat betetzeko espedientetik ondorioztatzen da, orokorrean, indarrean dauden arauak egoki betetzen direla.

*Gure aholkua:*

*• Langile-plantilla behin betiko finkatzeko, bitarteko aldi baterako bete diren lanpostu horiek behin betirako eskaintzea eta deia egitea komeni den aztertzea.*

*• Aurreikusitako ordainsarien beherapena zorra amortizatzeko aplikatzea.*

### VI.3. ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN EGINDAKO GASTUAK

Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketek 1.567.074 euro egin dute 2010ean; haien ehuneko 99 bete da. Kapitulu honek gastuen aurrekontuko guztizkoaren ehuneko 29 egiten du, eta ehuneko 42ko emendioa izan du 2009koarekin alderatuta.

Emendio hori 2009ko ekitaldiko bukaera aldera inauguratu zen eta 2010eko ekitaldian zehar 106.000 euro inguruko gastuak eragin dituen polikiroldegiaren kudeaketak eragina da gehienbat. 2011ko urritik aurrera Udalak bere gain hartu du zuzenean polikiroldegiaren kudeaketa. Bete alde batetik kultura- eta kirol-jardueretako gastuetan emendio nabarmena izan da; emendio horren arrazoia Antzerki Klasikoko Jaialdiari dagozkion gastuak izan zira; Jaialdi hori Estatutik helburu horretarako jasotako 170.000 euroko diru-laguntzen bidez ordaindu da osorik.

Kapitulu honetako gastuen lagin batez egin den azterketatik egiaztatu denez, gastu horiek kontratu-legediaren arabera tramitatzen direla eta dagokien moduan onartu, ikuskatu eta kontabilizatu direla ikusi da. Hala eta guztiz ere, puntuok aipatu behar dira:

• Laguntza-kontratu batzuek, 2002ko azaroaren 21ean Agentzia Exekutiboarekin egindakoak, esate baterako, gaur egun indarrean dagoen araudiak ezarrita dauzkan indarraldiaren epeak gainditzen dituzte.

• Badira bi arrisku-poliza, arrisku berari dagozkionak eta, horrenbestez, arrisku hori bi bider aseguratu eta ordaindu da.

*Gure aholkua:*

*• Gaur egun indarrean dagoen legeriak ezarrita dauzkan indarraldi-mugak gainditzen dituzten kontratuei dagokienez kontratazio-espediente berriak tramitatzea.*

*• Aseguru-polizen indarraldiak aztertu eta bikoizketak saihestea.*

### VI.4. TRANSFERENTZIA-GASTUAK

Transferentzia arruntek eta kapital-transferentziek 295.685 euro egin dute 2010ean eta ehuneko 91ko betetze-maila izan dute. Transferentzia horiek aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko bost egiten dute, eta ehuneko 36ko emendioa izan dute 2009koekin alderatuta. Ia transferentzia guztiak transferentzia arruntak dira.

2010ean kapitulu honetan izan den emendio handi hori eremu ureztatuak bihurtu diren herrilurren esleipendunei emandako diru-laguntzengatik gertatu da batez ere; 86.497 euroko diru-laguntzak eman dira guztira; horietatik 33.763 euro lursail horien esleipendunei esleitutako lursailetarako ureztapena ezartzen izandako atzerapenagatik emandako kalte-ordainei dagozkie eta 52.734 euro esleitutako lursailetan draina-bideak ezartzeko emandako diru-laguntzei. Lehenengo kontzeptuari dagokionez, Udalak urteko kanona igorri zien, baina esleipendunek lur horiek ureztatzeko lursail bihurtzeko lanetan izandako atzerapenagatik ureztapenik izan ez zuten sei hilabeteei zegokien partea itzultzeko eskatu zuten. Diru hori (33.763 euro) Udalak Nafarroako Gobernuari eskatu zion, bere aldetik; hark, ordea, ez zuen aintzat hartu erreklamazio hori, Landa Garapeneko Zuzendari Nagusiak 2011ko otsailaren 15ean emandako erabakiaren bitartez.

Gainerako transferentziak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea eta Kirol Zerbitzuen Mankomunitatea finantzatzeko (77.173 euro), irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat emandako (97.962 euro), JEZaren hobariak itzultzeko (13.369 euro) eta partzuergoetarako ekarpenak egiteko egindakoak dira.

Lehiaketa bidez esleitzen diren diru-laguntzei dagokienez (irabazi-asmorik gabeko erakundeentzakoak), exekuzio-oinarriek gaingiroki arautzen dute haiek nola eman, baina ez dira ezartzen haiek emateko irizpide egokiak. Arau gisa, aurrekontuetan izendatuta dagoen zenbatekoa eskatzaile guztien artean banatzen da, baina ez dago

jasota zertan oinarritzen den banaketa. Egin den azterketatik egiaztatu denez, gastu horiek modu egokian tramitatzen direla ikusi da, baina ez da beti-beti exijitzen exekuzio-oinarrietan eskatzen dena.

Diru-laguntza horien artean, musika-bandak jasotakoa nabarmendu nahi dugu: 22.600 euro guztira, hau da, biztanle bakoitzeko 6,01 euro, hain zuzen.

Egindako ohar horiek kontuan hartuta, beraz, hona gure aholkuak:

• *Zorrozki bete behar da exekuzio-oinarrietan irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako diru-laguntzei buruz ezarrita dagoena.*

• *Diru-laguntzak banatzeko irizpideak Udalak lehentasuna ematen dien helburuak kontuan hartuta zehaztea.*

VI.5. INBERTSIOAK

Ekitaldi honetan egindako inbertsioak 1.951.075 eurokoak izan dira, eta ehuneko 88ko betetze-maila izan dute, behin betiko aurrekontuari dagokionez. Kapitulu honek ekitaldi honetan aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko bost egiten du, eta ehuneko 72ko emendioa izan du 72koarekin alderatuta.

Kapitulu honetako gastuen lagin bat aztertu dugu, eta horien artean ondoko kontratazio-espedienteak sartu dira (BEZik gabeko zenbatekoak):

| Espedientea | Mota | Prozedura | Lizitazioaren zenbatekoa | Eskaintzak egin dituztenak | Esleipenaren zenbatekoa |
|---|---|---|---|---|---|
| Udaletxean egindako inbertsioak | Obra | Publizitaterik gabe negoziatua | 192.066 | 2 | 162.208 |
| Argiteria publikoa erreformatzea | Obra | Publizitaterik gabe negoziatua | 90.387 | 5 | 80.217 |
| Polikiroldegiko kanpoko pistetan egindako inbertsioak | Obra | Publizitaterik gabe negoziatua | 125.738 | 9 | 82.794 |

Horrez gainera, 2010eko ekitaldian Nafarroako Gobernuak Nafarroako Ubideko Eremu Ureztagarriko IV-4 sektorean sartzen diren Erriberriko Udaleko herri-lurretan ureztatzeko sarearen Proiektua onartu du, eta Riegos de Navarra, S.A. sozietate publikoari eman dio lan horiek egiteko ardura. Kontzeptu honen arabera aitorturiko betebeharrak 411.470 eurokoak dira.

Era berean, bi eraikin erosi direla ikusi dugu; Nafarroako Erdialdea Garatzeko Partzuergoaren egoitza eta Mankomunitateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen egoitza jartzea da horien helburua.

Orobat ikusi dugu inbertsio-gastu gisa sartu dela Asociación de la Industria Navarra (A.I.N.) elkarteak biziberritze sozio-ekonomikoko planerako egindako 91.450 euroko inbertsioa.

Horrekin guztiarekin gutxi gorabehera gastuaren ehuneko 63 zuritzen duten dokumentuak egiaztatu ditugu.

Oro har, aplikatzekoak diren kontratuei buruzko legeen arabera izapidetu dira espedienteak.

Hala ere, azpimarratzekoa iruditzen zaigu polikiroldegiko pistetako obren emendioa, hasierako proiektuan aurreikusita ez zegoen estalkia jartzeak eragindako exekuzio-maila handitzeak eragina. Horrela, hain zuzen, 82.794 euroko esleipena zena, obrak likidatzean 109.250 euroko partida bilakatu da, BEZ sartu gabe.

*Obrak izan behar dituzten ezaugarri guztiak kontuan hartuta planifikatzea eta proiektuak berrikusi eta eskatzen diren ezaugarri teknikoetara egokitzen direnean onartzea aholkatzen dugu.*

Ondoren Udalak azkeneko bost urte hauetan egindako inbertsioen koadro bat jarri dugu. Inbertsio-ahalegin horrek, eta lan batzuetarako finantzaketa-faltak eragina da, funtsean, udalaren diruzaintzak gaur egun duen egoera. Koadroan ikusten denez, bost urte hauetan 16 milioi euroko inbertsioak egin ditu guztira Udalak; inbertsio horiek helburu jakinetarako diru-laguntzez eta ondarearen salmentaz finantzatu dira ehuneko 58an, eta gainerakoa zorpetuz eta bestelako baliabide bereki batzuk erabiliz.

| Inbertsioa | Zenbatekoa |
|---|---|
| Ikastetxe publikoko lanak | 1.053.011 |
| UPOko 3. EUaren hirigintza-lanak | 2.092.006 |
| Hilerriko obrak | 627.767 |
| Herri-lurrak ureztapen-lur bihurtzea | 2.058.389 |
| Kiroldegia | 3.690.340 |
| Alde zaharrean zoladura jartzea | 1.045.454 |
| Udaletxeko obren inbertsioa | 415.516 |
| Erri Berri zolatzea | 249.127 |
| Argi publikoak | 143.725 |
| Igerilekua eraberritzea | 96.440 |
| Ponpaketa | 79.794 |
| Erriberriko parajean berreskuratzea | 271.942 |
| Las Pozas kaleko etxabea erostea | 169.046 |
| Argi publikoetan egindako inbertsioak | 253.877 |
| Beste zenbait | 3.760.278 |
| Guztira | 16.006.712 |

VI.6. FINANTZA-ZAMA

Gastuen aurrekontuko 3. eta 9. kapituluetako baturak 222.356 euro egiten du 2010ean. Kopuru horrek gastuen guztizkoren ehuneko 4 esan nahi du. Ehuneko 91 egin du gora 2009. urtearen aldean.

2010ean Udalak beste mailegu batzuk eskuratu behar izan ditu –2.139.000 euroko mailegua–, udala aurkitzen zen finantza-egoera larriagatik batez ere; egoera larri hori UER-3 hirigintza-ekimenari dagozkion zenbait kuotatan ordainketa berandutzeak eragina da gehienbat.

Egin den azterketatik egiaztatu denez, gastu horiek modu egokian tramitatzen eta kontabilizatzen dira, baina bereziki aztertu beharko litzateke eta, hala badagokio, erregularizatu ere bai, 6.841 euroko zor zaharra.

Aurreko zorraren osotasunean, zor zahar horrez gainera, 2003tik 2010era arte eskatutako maileguak sartzen dira. Interes aldakorreko maileguak dira gehienak, euriborra gehi ehuneko zenbateko bat erreferentzia gisa dutenak. 2010eko abenduaren 31n, 6.141.808 eurokoa da zor bizia. Zor horien urtemugak ondoko taula honetan ageri da:

| Urte bakoitzean amortizatzeko zorra | Muga-urtea | Portzentajea |
|---|---|---|
| 6.841 | Muga-urterik gabe | 0,1 |
| 227.385 | 2011 | 3,7 |
| 287.750 | 2012 | 4,7 |
| 291.481 | 2013 | 4,7 |
| 295.336 | 2014 | 4,8 |
| 299.321 | 2015 | 4,9 |
| 300.929 | 2016 | 4,9 |
| 305.048 | 2017 | 5 |
| 237.181 | 2018 | 3,9 |
| 241.576 | 2019 | 3,9 |
| 246.115 | 2020 | 4,0 |
| 3.402.845 | Gainerakoak | 55,4 |
| 6.141.808 | Guztira | 100% |

Koadro honetan ikusten den bezala, zorraren ehuneko 44,6k modu linealean du muga-urtea 2020 arte; urte horretatik aurrera bateraturik aurkeztu dugu zorraren gainerakoa; nolanahi ere kontuan hartu beharra dago amortizazioen kalendarioa 2035 arte iristen dela. Ekitaldi horietan amortizatu diren zor-portzentajeak 2010 arte izandakoen berdinak dira.

Udalak 2010eko ekitaldian zehar diruzaintzako hiru mailegu izan dituela nabarmendu behar da. Milioi bat euroko mailegu bat, 2010eko azaroaren 25ean amortizatua, osoko bilkurak prezio inguru hori izango zuten lursail batzuk saltzea erabaki zuelako eskatua. UER-3 saileko lursail horien salmenta ez zen egin, eta Udalak itzuli egin behar izan zuen mailegu hori.

Beste bi kredituak, bien artean 411.471 euro egiten zutenak, Ureztapenaren bigarren aldiko 411.000 euroak ordaintzeko eskatu ziren. Diruzaintzako mailegu horiek 2011ko lehenengo hiruhilabetekoan amortizatu ziren, Nafarroako Gobernuak herri-lurretako lursailetan ureztapena instalatzeagatik emandako kapitaleko 360.087 euroko dirulaguntza kobratu zenean. Ikus VI.8 puntua.

VI.7. ZERGA BIDEZKO DIRU-SARRERAK

Udalaren aitortutako eskubideek 2.011.293 euro egiten dute 2010ean; ehuneko 7ko jaitsiera izan da aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Kapituluka era honetan banatzen dira eskubide horiek:

| | Euro kopurua | | |
|---|---|---|---|
| -sarrerak | 2010 | 2009 | 2010/2009 aldea (%) |
| | 1.238.601 | 1.457.665 | -15 |
| | 193.587 | 248.684 | -22 |
| -sarrerak | 579.105 | 467.310 | 24 |
| -sarrerak, guztira | 2.011.293 | 2.173.659 | -7 |

Alde handienen arrazoiak hauek dira:

• Zuzeneko zergetan beherakada izan da (ehuneko 15); horren arrazoia, salmenta-eragiketak gutxitu direnez, horrek eragin duen Gainbalioaren gaineko Zergak izan duen beherakada izan da; zeharkako zergetan (EIOZ), berriz, ehuneko 22ko beherakada izan da, une honetako egoera ekonomikoaren ondorioz hirigintzako jarduera urritu delako; alor honetan ehuneko 65eko betetze-maila izan da.

Udalak aplikatutako tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak jasotzen duen sortako tarte ertain-altuan kokatzen dira, ondoko taula honetan ikus daitekeen bezala:

| | 2/95 FORU LEGEA | Udala, 2010 |
|---|---|---|
| Lurraren kontribuzioa | 0,10 - 0,50 bitartean | |
| Landalurra | | 0,6898 |
| Hiri-kontrib. | | 0,2186 |
| Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zerga | 1 eta 1.4 bitarte | 1 |
| Lurren balioaren gehikuntza | | |
| Gaurkotzearen koefizientea | 2 - 3,8 bitartean | 3,0 - 3,2 bitartean |
| Karga-tasa | 8 eta 20 bitartean | 18 |
| EIOZ | 2 - 5 bitartean | 4,0 |

• Tasa, prezio publiko eta bestelako diru-sarreretan izan den ehuneko 24ko gorakadaren arrazoia eraikia berria den polikiroldegiko sarrerek eragin dituzten diru-sarrerak –94.924 euroko diru-sarrerak izan dira– eta herri-lurrak ureztaketalur bihurtzeko lanetarako lizitazioa egin zuen enpresak egindako ordainketak –44.172 euro– “Itxitako Aurrekontuetakoak Itzulketak” atalean kontabilizatu izana izan dira. Ordainketa horiek lan horien azken kostua aurrekontuan ezarria baino txikiagoa izan delako eta horrenbestez Udalak hasieran aurrekontuaren arabera ordaindutakoaren eta obrak bukatutakoan izandako egiazko kostuaren arteko aldea itzultzea dagokiolako izan dira.

Diru-sarreren aurrekontuko kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, gastu horiek oro har egoki izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu. Alabaina, puntu hau azpimarratu nahi ditugu:

• Beste balorazio-ponentzia bat egiten ez den bitartean, aurrekoa 2005ekoa baita, Udalak hirilurrei eta landalurrei aplikatzekoak zaizkien tasak bereizten jarraitzen du, eta ez da egokitu Toki Ogasunei buruzko Foru Legeko 139. artikulu berrian aurreikusitako lurralde-kontribuzioaren tasa bakarrera. Foru lege hori 2006ko urtarriletik dago indarrean.

*Gure aholkua:*

• *Indarrean dagoen legediak agindutako epearen barruan onartzea balorazio-ponentzia berria eta planteatzea lurralde-kontribuzioaren tasak.*

VI.8. BESTELAKO DIRU-SARRERAK

Diru-sarreren multzoa eta haien bilakaera ondorengo taulan ikus daitezke:

| Beste diru-sarrera batzuk | Euro kopurua<br>2010 | <br>2009 | 2010/2009 aldea (%) |
|---|---|---|---|
| Transferentzia arruntak | 1.469.762 | 1.233.662 | 19 |
| Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-aprobetxamenduak | 330.401 | 192.502 | 72 |
| Inbertsio errealak besterentzea | 332.657 | - | - |
| Kapital-transferentziak eta bestelako kapital bidezko diru-sarrerak | 1.207.893 | 2.519.007 | -52 |

Eginiko azterketatik, nabarmentzekoak dira:

• Transferentziengatiko eta diru-laguntzengatiko diru-sarrerekiko mendekotasuna ia ehuneko 36koa da, aurreko ekitaldian izan zena baino 4 puntu gutxiagokoa. Portzentajearen beherakada hori kapital-transferentzia gutxiago jaso direlako izan da batez ere.

• Transferentzia arruntetan, Estatuak Erriberriko Antzerki Klasikoko Jaialdia ospatzeko emandako 170.000 euroko diru-laguntza nabarmendu behar da. Ikus VI.3 puntua. Nabarmentzekoa da, orobat, Toki Ogasunen Parte Hartzeko Funtsaren bitartez jasotako 937.599 euroko diru-laguntza ere.

Transferentzia arrunten kapitulu hau handitzea eragin duten eragileetako bat Nafarroako Gobernuak Erriberriko Herriaren Biziberritze Sozio-ekonomikoko Plana –Asociación de la Industria Navarra erakundeak garatua– garatzeko emandako 91.450 euroko diru-laguntza izan da. Azterketa hori inbertsio gisa kodetu da; horrexegatik, hain zuzen, diru-laguntza hori ere kapital-transferentziei dagokien VII. kapituluan behar zatekeen kodetu. Udalak akats hori zuzentzeko behar zen kontabilitate-idazpena egin du.

• Ondarearen diru-sarrerak ehuneko 72 emendatu dira, ihinztatzezko ureztapeneko lursailen eta idorreko lurlanen hektareako prezioarengatik izan diren diru-sarreren ondorioz.

• Inbertsioen besterentzeagatiko diru-sarrerak Nafarroako Erdialdea Garatzeko Partzuergoaren egoitza eta Mankomunitateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen egoitza kokatu diren orubea 175.129 eurotan besterendu delako izan dira. Ikus VI.5 puntua. Udalak 157.528 euroko beste diru-sarrera batzuk aitortu ditu, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Kanala eraikitzeko desjabetzez kendu dizkion landalurren ordainez.

• Kapital-transferentziei dagokienez –1.207.893 euro dira guztira–, bereziki aipatzekoak dira VI.7 puntuan aipatu den eta oraindik kobratzeko dagoen 360.087 euroko kapital-transferentzia, Nafarroako Gobernuak herri-lurrak ureztaketako lur bihurtzeko emandako diru-laguntza eta estatuak Espainiako ekonomia eta enplegua bultzatzeko planaren barruan (E Plana) emandako 387.055 euroko transferentzia, gastuari dagokion VI. kapituluan kantitate txikiagoko hainbat inbertsiotan gauzatu dena.

• Hirigintzako eragiketen ondoriozko diru-sarrerak (hirigintzako aprobetxamenduak eta kuotak) 37.597 eurokoak izan dira 2010ean, eta UE-22-B-1 unitatearen hirigintza-aprobetxamenduaren ehuneko 10ari dagozkio.

Kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, oro har, egoki izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu.

## VI.9. HIRIGINTZA

Hirigintzaren kudeaketa Udalak berak egiten du; horretarako aldian-aldian kanpoko aholkularitza izaten du, zerbitzu profesionalak emateko laguntza-kontratuen bitartez.

Une honetan indarrean dagoen plana 2007ko urtarrilaren 8ko Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 4. zenbakian onartu zen behin betiko diligentziaz.

35/2002 Foru Legearen 56. artikuluaren arabera, Udalaren Plan Orokorra Lurraren Erabilerarako Estrategia eta Ereduak eta Udalaren hirigintza-planak osatzen dute.

Udalak hirigintzako hitzarmenen erregistroa eta artxiboa dituela egiaztatu da. Era berean Hirigintzako eta Eraikuntzako hautazko Udal Ordenantzak ere badituela egiaztatu da.

UPOa garatzeko eta betetzeko programan aurreikusitako ekimenen artean EU-3 eremuko ekimena nabarmendu behar da.

### VI.9.1.Birzatiketa-proiektua

Unitate hau finkatuta dauden beste unitate batzuen ondoan dago, eta lankidetza-sistemaz urbanizatu zen. Sistema honen bidez, Udalak hartzen du bere esku behar diren lanak egitea, eta gero jabeei ordainarazten die kostua.

Birzatiketa-proiektu honi 2007ko martxoaren 15ean eman zitzaion hasierako onespena, Alkatetzaren ebazpenez, eta 2008ko urtarrilaren 11n eman zitzaion behin betiko onespena.

Proiektu honek sei zuzenketa izan ditu, azkenekoa 2011-03-23an. Geroztik testu bateratu bat prestatu zen eta geroago, 2011-06-03an zazpigarren zuzenketa onartu zen, Nafarroako Auzitegi Nagusiak errekurtsoa egindakoen alde (lursailen jabeak) emandako sententzia baten ondorioz.

Lehenengo zuzenketak zenbait jabek egindako errekurtsoak ebazten ditu eta beste bostek lursailen jabetza-arazoak ebazten dituzte.

Hainbat errekurtso egin dira auzitegien aurrean; batzuetan Udalari eman zaio arrazoia, beste batzuetan errekurtsoak jarri dituzten jabeei. Hauen artean aipatzekoa da eraispen batengatiko kalteordaina 87.796 euroz handitzen duen bat, kalteordain hori, horrenbestez, jabeei ordainarazi beharko zaielarik.

Kexak bidali zitzaizkion Nafarroako Arartekoari, eta haren iradokizunak onartu zirelarik, haren egitekoa bukatu zen.

### VI.9.2. Eragin ekonomiko-finantzarioa

Urbanizazioaren kostua ez dago erabat likidatuta. Txosten hau idazten den unean, gastuak 2,3 milioi eurokoak ziren, eta 2,1 milioi euroko kuotak zeuden ordainarazita; horietatik 231.811 euro udalari berari zegozkion, lursailaren zati baten jabea zenez. Geratzen ziren kuoten 1,8 milioietatik, 306.571 euro daude kobratuta.

Kobratzeko dagoen zenbateko horrek eragiten ditu diruzaintzako arazoak eta diruzaintza-gerakina negatiboa izatea. Horregatik, eta diru-laguntza jaso arte kanalaren lanak finantzatu beharragatik, 2.139.000 euroko mailegu bat eskatu zen 2010ean.

2010eko abenduan, zorraren zati bat kobratzeko, bahimendu bat egin zuen Udalak, baina errekurtsoa aurkeztu zen. Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenean adierazten du ezen esleitutako lursailak beharturik daudela (urbanizaziozko) jarduera-sistemari dagozkion kargak hartzera eta gastuak ordaintzera eta, zorraren bermerik baldin badago, berme hori exekutatu behar dela lehendabizi.

Laburbilduz, bada, Udal Planeko R-3 unitatearen gauzatzean akats handiak egin dira, egin diren errekurtsoek, zazpi zuzenketa eta testu bateratu bat egin beharrak eta horrek guztiak unitate horretako hirigintza-jardueran eragin duen atzerapenak erakusten duten bezala. Atzerapen hori ekonomiaren eta bereziki eraikuntzaren sektorearen krisiarekin batera gertatu da; horregatik lursailen jabeek ez diote ordaintzen udalari hirigintza-lanetan dagokien partea. Nafarroako Administrazio Auzitegiaren arabera, zorra kobratzeko lehenengo garantia lursailak berak direnez, aise ondoriozta daiteke hirigintzazko jarduera horrek finantzetan izan lezakeen eraginak urte luzetan hipotekatu lezakeela Udalaren finantza-gaitasuna.

*Horregatik, bada, hona gure aholkuak:*

- *Inbertsio esanguratsu guztiek izan behar dutela bideragarritasun-plan egoki bat.*
- *Lur urbanizatuaren egiazko eskaera dagoela frogatzen duten azterketak edo ageriko frogak izatea edo, bestela, lur urbanizaezina lur urbanizatua bihurtzeko eta horrek udalaren ohiko kudeaketan eraginik ez izateko behar den finantzaketa izatea.*

## VI.10. GORABEHERAK ETA ZALANTZAK

Udalak planteatuta dauzkan gorabeherak eta zalantzak UER-3 unitatearen birzatiketari dagozkion gora jotzeko errekurtsoei eta auzi-errekurtsoei dagozkie; horietako, gehienak, hala ere, 2011n erabaki ziren.

Erabakitzeko daude:

Lursailen balioaren emendioaren gaineko zergaren likidazioaren kontra hiru sozietatek jarritako berrezartzeko errekurtsoak.

Erriberriko Udalaren kontra kudeaketa-plan bat prestatzeagatiko 11.500 euro ez ordaintzeagatiko 603/2010 Prozedura Monitorioa.

Txosten hau Jesús Muruzabal Lerga kontu-ikuskatzaile jaunak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2012ko maiatzaren 2an.

Ganberako burua: Helio Robleda Cabezas

Lege Gordailua: NA – 363-1995 ISSN: 2254–1950